

**GOGO
AREN
INDA
RRA**

ONINTZA ENBEITA



FUNDAZIOA

20. URTEURRENA



**GOGO
AREN
INDA
RRA**

ONINTZA ENBEITA

Lehen agitaraldia: 2022, urria.
Athletic Club Fundazioa
www.athleticclubfundazioa.eus
info@athleticclubfundazioa.eus

L.G.:

© testua, Onintza Enbeita Maguregi
© Argitalpen honena: Athletic Club Fundazioa

Edizioa: Izaskun Gracia Quintana
Diseinua: LaTapadera Creaciones

Liburu honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.

Eragotzita dago, legeak ezarritako salbuespenetan izan ezik, obra honen edozein berregintza, komunikazio publiko edo moldaketa, aurrez jabetza intelektualaren titularren baimena eskuratzen ez bada.

Pilitxuri; hamazazpi urterekin berriz ere irakurtzen irakatsi zidalako.

GOGOAREN INDARRA

Lehenengo aldiz baloia eman ziotenean, justu-justu doze-na bat pauso elkarren atzean ematen zituen. Jakina, bera ez da momentu horretaz gogoratzen, baina etxekeok hala azaltzen diote mila bider. Berez, ume guztiekin jolasten da antzera: baloia hanken parean jartzen zaio umeari eta hark, ahal duen moduan, ostikoz jotzen duenean, helduek “gooooooooo!” oihukatzen dute. Batzuetan, hor hasten da dena, eta beste batzuetan ez da ezer berezirik gertatzen. Laiatzena lehenengo kasu horietako bat izan zen. Gura-soek milaka aldiz errepikatu diotenez, begiak piztu egiten zitzaizkion baloia ikusten zuen bakoitzean. Inoiz inora plastikozko baloia ahaztuta joaten baziren, paperezko pilotak egiten zizkieten. Hori zen umea lasaitzeko modu bakarra.

Sei urterako ez zuen beste jostailurik nahi. Olentzerok ekartzen zizkion panpinak eta bere urtebetetzean oparitzen zizkieten mineralak egiteko jolasak, plastilina, le-goak, sukaldean aritzeko traste txikiak edo dinosaueroak ezagutzeko taulak. Papera irekitzean ilusioa igartzen

zitzaion begietan, baina jolasteko orduan, baloia hartzen zuen beti. Eta Laiatzen kasuan, beti zen beti. Ez zeukan ezer beste jostailuen kontra eta ez zituen panpinak gorroto, berak askotan azaldu behar zuen moduan. Ikusteko politak iruditzen zitzaizkion, baina jolaserako, ez zegoen baloiaren modukorik. Izerditan blai iristen zen parketik etxera; askotan apurtzen zituen prakak belauenen parean. «Gaur atezaina izatea egokitu zait!», esaten zuen halakotan, eta amaren oihuak itotzen ziren ahotik irten baino lehen, alabari ezer esatea alferrik zela zekielako.

Izerditan blai ere joaten zen klasera jolastokitik bueltan, gehienetan baloia besapean. Pasioa pizten zitzaion zera biribil hura hanketan hartzen zuenean. Hanken parean jarri eta «gooooo!» oihukatu zioten lehen aldiaz oroitu ohi zen. Ematen zuen taldea, estrategia, gola, zelai erdia, sareak... usaindu ahal zituela. Ez zuen gogoratzen futboleak jokatu ez zuen egun bat ere. Bere oroimenean beti ikusten zuen bere burua baloi baten inguruan. Plastikozko Mickey Mousen aurpegia zuen baloi gorritik arauzko baloiara, izandako baloi guztiak gogoratzen zituen. Bereziki, asteburu batean baserri bateko teilatura erori zen baloi zuri-beltz hura. Bere kutuna zen, Mickey, Minion edo Frozen ez zeukan lehena. Baserriko jabeak, tamalez, ez zien bere bila joaten utzi eta antzarak ferratzera bidali zituen. Kanpatzeko lekua hurbil zegoenez gero, behin baino gehiagotan espero ez zituen gauzak etxe ingurura iristen zitzaizkion eta kokoteraino zegoen.

—Hor badago, dagoela! —esan zien haserre.

—Baina... e... baloia hartu eta joan egingo gara.

—Ez! Esan dizuet, hor erori bada, hor utzi.

Dena dela, laster lortu zuen baloi berria. Bazekien eskolan saiatu behar zuela futbolerako denbora eta materiala lortzeko. Eta gogor egiten zuen. Agian gogorregi, zeukan adinerako.

Ikasgelan ematen zuen denbora kenduta, eskolan mutilekin egon ohi zen eta eskolatik etxerako bidean elkartzen zen neskekin.

—Non egon zarete egun guztian? —galdetu zien Laia-tzek egun batean.

Lagunek elkarri begiratu zioten, ados baleude eta inor esatera ausartuko ez balitz bezala.

—Hori guk galdetu beharko genizuke —esan zion Junek. Nabarmena zen guztien izenean hitz egiten ari zela.

—Zergatik?

—Bada, gu guztiok elkarrekin egon garelako eta badakigulako besteak non egon diren, zu salbu. Zu zara beste gauza batzuk egitea gustatzen zaiona.

Isiltasuna egin zen. Erantzun zakar samarra iruditu zitzaion Laiatzi. Bere galdera ez zen hainbesterako. Askotan, gelako neskekin ari zenean, hitz egiten hasteko bide bat aurkitu behar izaten zuen.

—Orduan zeuek galdetu behar zenidakete non egon naitzen! —erantzun zuen Laiatzek.

—Hara bestea! Ez zara konturatzen guk badakigula zu non egon zaren?

—...

—Futbolean ibiltzea zenbat gustatzen zaizun jakingo ez bagenu ere, gaur hiru aldiz bota diguzue baloia soka saltoan ari ginela. Beraz, guk beti jakiten dugu nortzuk eta non ari zareten baloiarekin.

Joan 57. orrialdera.

Eskolan askotan galdetzen zaie umeei ea zer izan nahi duten helduak direnean. Jakina, inork ez du soka saltaria izatearekin amets egiten. Asko dira, ostera, futbolari izan nahi dutenak. Laiatzek ere argi zeukan.

—Ezin duzu futbol hutsetik bizi, beste zerbait ere izan behar duzu. Futbola zure *hobbya* izango da, baina bizibidea beste nonbait aurkitu behar izango duzu —esaten zioten, eta berak ez zuen ulertzen zergatik eta, batez ere, zertarako esaten zioten hori berari bakarrik. Mutilei beselako mezuak ematen zizkieten:

—Beno, badakizue futbolari profesionala izateko on-ona izan behar dela, eta ikasketak garrantzitsuak dira... Gainera, ona izanda ere, gazte jubilatuko zarete eta beste zerbaiti heldu beharko diozu...

Laiatzi muturretan ixten zioten atea: zuretzat zaila izango da, esaten zioten beti. «Niretzat», pentsatzen zuen berak, «eta besteentzat?». Berak ile-apaintzaile, irakasle, abokatu, garbitzaile edo baserritar futbolzalea izan behar zuen, baina futbolariak izatea nahikoa zen mutilentzat. Eta txar-to jokatzeko zuten mutilak ere bazeuden, eta haiek ere ezin izango zuten futbol hutsetik bizi! Berari ez zitzaion kezkatzen futbolarik soldata bat emango zion ala ez; berari futbola gustatzen zitzaion eta bere jokoa arduratzen zuen gauza bakarra zen. Ondo pasatzea zen kontua. Beste alde batetik, konturatu zen bere ametsa zalantzan jartzen zutenek mutilen ametsak zapuzten ez zituztela. Mutilei aholkuak ematen zizkieten edo txarrak ziren berria jakitean kolpe handirik ez hartzeko prestatzen zituzten, baina inork ez zien

esaten futbolariak izango ez zirenik. Laiatzek ulertzen zuen «zaila» «ezinezkoa» bezala; hau da, berarentzat zaila izango zela esaten ziotenean, berarentzat ezinezkoa izango zela esaten zuten. «Zuretzat» esaten zioten, beti «zu» hori ondo markatuta. «Zuretzat» zaila izango da, baina besteek hau eta beste egiten badute, edo *hobbytzat* edo kirol-praktikatza hartzen badute, ondo etorriko zaie. Eta berak ikusten zuen zenbait mutilentzat futbolariak izatea ezinezkoa izango zela, txarto jokatzeko zutelako.

Eta hala ere, jolas-ordua iristen zenean eta taldeak egin behar zirenean, mutilek jokalaririk txar haiek nahiago zituzten bera baino. Amorrua ematen zion, mina ere bai, ezin zuen ulertu zer gertatzen zen. Edo bai, bistakoa zen eta edonork uler dezakeen: neska zen guztien begietara, eta azkenerako uzten zuten, jadanik aukeratu ezin duenari tokatzeko. Nolako min ematen zion horrek. Zenbat aldiz eutsi zion negarrari bere ustez lagunak zirenek bera aukeratzen ez zutelako. Zergatik ez zuten talde ona osatzea lehenesten? Zergatik uzten zuten bera askotan azkenerako? Berak aukeratzen zuenean, ez zuen lelokeriarik egiten: talde ona osatzen zuen.

Garai batean, borroka handiak sortzen ziren noren baloia-rekin jokatu behar zuten erabakitzeko, baloia zeukanak arauak bere erara aldatzen zituelako. Horrela ezin zuten jokatu eta, azkenean, gatazkak eteteko, irakasleek esku hartu zuten. Egun bakoitzean ikasle baten baloiarekin jokatuko zutela eta arauak aldatu ezin zirela erabaki zuten.

Ordutik aurrera, bi izaten ziren taldea osatzen zutenak, egun horretako kapitainak izango zirenak: baloia eramaten zuena eta alfabetikoki bere atzetik zegoena. Horrela, egun bitan jarraian egiten zuen bakoitzak taldea: baloia eramaten zuenean eta aurreko egunean. Harri-orri-ar egiten zuten nork hasi behar zuen jakiteko. Laiatzi hastea egokitzen bazitzaion, lehenik Zigor aukeratzen zuen, jokia antola zezan. Gero, Arkaitz edo Lander, eta gero, Aritz. Hortik aurrera, taldea ikusten zuen eta egunaren arabera aukeratzen zituen. Bere laguna Aritz zen eta besteekin ez zuen nahi adina konfidantzarik, baina ez zitzaion axola. Jokatzeko taldea egiten ari zen, ez bizitza osorako lagun-taldea.

Bere buruan talde on batek izan behar zituen bertuteak batzen zituen taldea osatzen saiatzen zen: antolatu, eraso eta eutsi. Askotan, Martinek eta Liherrrek aurpegira botatzen zioten ez zituela haiek ia inoiz aukeratzen. Egia zen. Liherrrek ez zuen baloia pasatu nahi eta Martin txarra baino txarragoa zen. Gainera, berari gauza bera egiten zioten.

Talde banaketari buruz gehiago jakin nahi baduzu,
joan 13. orrialdera.

Talde banaketari buruz gehiago jakin nahi ez baduzu,
joan 12. orrialdera.

Orduak ematen zituen Laiatzek jokaldiak aztertzen. Partida bera mila aldiz ikusten zuen. Ezin zuen futbola burutik kendu. Ona izan behar zuen besteek lehenengoan aukera zezaten, eta horretara jarrita zeukan bere indar guztia. Eta saiatzen denak emaitzak izaten ditu: iritsi zen lehenengoa aukeratu zuten eguna.

Arkaitzen eta Landerren txanda zen. Aurrez aurre jarri ziren, harri-orri-ar egin zuten eta Arkaitzi tokatu zitzaion hastea: Laiatz aukeratu zuen. Lehenengo aukeratua izan zen. Denak geratu ziren isilik, baina Laiatzek oihu egiteko, Arkaitzi eskerrak emateko, norbait besarkatzeko gogoia zeukan. Esku bat jasotzen bazuen, zerua ukituko zuela iruditu zitzaion. Arkaitzen atzera joan zen, pausoa ondo markatuz.

—Harroa halakoa! —esan zuen Liherrak.

Inork ez zuen Laiatzen alde ezer esan, ezta Liherraren alde ere. Ezer esan ez balu bezala geratu ziren denak. Laiatzek pentsatu zuen gogorragoa zela besteen keinu berdinak eginda bera harrotzat hartzea, inork bera lehenengo ez hartzea baino. Ezin zen poztu ere, gauzak ondo ateratzen zirenean. Poza adieraziz gero, harroa zela esango zioten mutilek. Edo paketea heldu eta aldakak aurrera mugitzen ziren edo erdiko behatza jasotzen zuten. Beraz, lasai egon behar zuen, emozioak erakutsi gabe.

Pentsamendu horiek burutik kentzen saiatu zen, hain pozik zegoen! Lagunei gertatutakoa kontatzeko irrikan zegoen.

Joan 16. orrialdera.

Munduko ume gehienak arrapaladan irteten dira etxera edo jolastokira joateko txirrinak jotzen duenean. Laia-tzen ikasgelatik banaka ateratzen ziren txirrina entzun bezain laster. Normalean, Lander jolastokia zapaltzen zuen lehenengoa zen. Ez zen azkarrena, baina gauza guz-tiak zeuden lekuan utzita etortzen zen jolastokira. Haren inguruan hasten zen dena. Futboleak pozik ibiltzen zen. Azken batean eskolan egiten zituzten gauza guztien arte-tik, futbolak ematen zion adrenalina askatzeko aukera. Txirrinak jotzen zuenean, aulkitik salto egiten zuen elek-trokatatu egin izan balute bezala.

Bigarrena izaten zen Arkaitz. Hark bai egiten zuen korri-ka oso azkar. Azkar-azkarra zen. Gimnasiako irakasleak atletismo talderako fitxatu nahi izan zuen, baina etxean Athleticzale amorratuak izaki, futbolerako bizi zen. Be-rak ere ez zekien berak aukeratutako zaletasuna ote zen, baina horixe zen etxean zeukana. Gurasoek kolpe latza hartuko lukete futbola interesatzen ez zitzaiola esango balie. Are latzagoa, Athletic ez den beste talde baten zalea izango balitz. Elastiko zuri-gorria, Athleticceko armarria zeukan karpeta eta jokalarien kromoak bazituen, eta klu-baren historia buruz bazekien.

Aimar, Aritz, Asier eta Zigor lasai jaisten ziren. Astiro ez, baina lasai. Askotan elkarrekin berbetan etortzen ziren, eta haiengandik zentimetro gutxira etortzen zen Laiatz. Eginahalak egiten zituen haien elkarrizketan sartzeko, baina batzuetan ez zuen zirrikiturik aurkitzen. Tarteka, Aritzek apropos zabaltzen zion lekua.

Aimarrengatik jolas-ordu guztia berbetan egongo ziratekeen. Lagunekin zegoelako gustatzen zitzaion futbola. Ez zuen arima jokoan jartzen. Gehienetan atezaina zen, korrika ez egiteko. Besteek atera botatzen zutenean, baloia hartzeko esfortzu handirik ere ez zuen egiten.

Aritz indartsua zen. Ez zen bereziki ona, baina inork ezin zuen berak adina denboran iraun jokoan. Partida bat, bi edo hiru, beste guztiak leher eginda zeudenean, Aritzek jarraitu egin zezakeen. Soinketako irakaslea ere harritura zeukan Aritzen iraupenak. Behin, eskolako zaldia apurtu zuten eta irakasleak ikastetxearen inguruan korrika ibiltzera zigortu zituen. Ehun buelta emateko mehatxatu zituen, baina Aritz izan zen 30 buelta egin zituen bakarra. Eta fresko-fresko zirudien.

Zigor despistatua zen; despistatuegia talde kirol bate-rako, baina futbola gustatu egiten zitzaion. Ondo pasatzen zuen. Ez zeukan talde batekiko interesik. Berdin zitzaion liga nork irabazten zuen, baina fitxaketak eta entrenatzaileen estrategiak jarraitu egiten zituen. Kirola bera gustatzen zitzaion. Bigarren eta hirugarren mailako partidak zein partida handiak aztertzen zituen, Alemaniako liga gozatzen eta Ingalaterrakoarekin flipatzen zuen, eta selekzioen arteko norgehiagokak gustura hartzen zituen.

Amets filosofoa zen. Futbolaz eta bizitzaz hitz egiten zuen txikitatik. Irakurtzea ere gustatzen zitzaion. Benetan, hori zen bere pasioa: irakurtzea. Kontua zen futboleant jokatu behar zuela lagunak izateko eta bakarrik ez geratzeko.

Jokalari ona zen, hala ere. Taldean ondo moldatzen zen eta baloia taldekide guztien artean mugitzen bazekien.

Kontrakoa gertatzen zitzaion Liherrri. Harroegia zen baloia besteei emateko. Guztiak haserretzen baziren ere, ez zuen amore ematen. Berak onena izan nahi zuen eta besteak, hor konpon.

—Zuei aukeratzea tokatzen zaizuenean, ni azkena naiz beti —esaten zien Laiatzek.

—Ez da gauza bera!

—Zergatik ez?

Talde guztiak zekien hori hala zela, baina inork ez zuen ezer esaten. Guztiek zekiten zer gertatzen zen: neska zela.

—Beno, nik niri gustatzen zaidan jokoak egitea ahalbide-tuko didan taldea egiten dut! Hori, behintzat, zilegi da!
—esaten zion bere buruari.

Besteek ez zuten hori onartu nahi. Ez berak nahiko lukeen bezain erraz.

Joan 12. orrialdera.

Klasetik atera zenean, betiko neskekin elkartu zen etxera joateko. Haien gauzez ari ziren: ez dakit nork txandapasa egin zuela goman jolastean, karta bat galdu zutela bikoteak egiteko jokoan... mingaina ez zitzaion ahoan kabitzen kontatzeko zeukanarekin, baina ez zuen hitz egiteko momenturik aurkitzen. Halako batean, ordea, ahots guztien gaintetik, ozen baino ozenago esan zuen:

—Gaur lehenengo aukeratu naute taldeak egin ditugunean.

Inork ez zuen ezer esan. Espero zuen lagunek zerbait esatea, bere itxaropena eta poza ulertuko zutela eta berarekin poztuko zirela, edo gertatutakoaren garrantziaz galdetuko ziotela edo zer zekien berak! Lagunak ziren, bazekiten beretzat zer zen futbola, gauza garrantzitsu bat gertatu zen... Zer gutxiago interes edo poz apur bat erakustea baino. Inork ez zuen poza erakutsi, baina tristura ere ez. Beste edozein gauza kontatu izan balu ere, berdina izango zen erreakzioa. Egun hartan, bere hamaika urteetan lehenengo aldiz, norbaitek Laiatz beste edonor baino lehen bere taldean nahi izan zuen, eta bere lagunei ez zitzaien ardura. «Ustezko lagunak», pentsatu zuen.

—Dantza-ikastaroan eman dut izena —bota zuen Leirek.

—A! —esan zuen Laiatzek—. Benetan ez duzue ulertzen ze garrantzitsua den niretzat lehen aukeratua izatea?

—Bada, zu dantzara hasten bazara, ni ere bai —esan zuen Junek—. Ez dut bakarrik joan nahi, baina zurekin animatu egingo naiz.

—Nik ere badut gogoa —esan zuen Anderek.

Amore eman zuen Laiatzek. Argi zegoen berak esateko zeukana jende hari asko interesatzen ez zitzaiola. Triste heldu zen etxera, baina pozik ere bazegoen, edo hori uste zuen behintzat.

—Gaur lehenengo aukeratu naute taldea osatzeko!

—Pozik egongo zara! —erantzun zion nebak.

—Bai, baina harrotu egin naizela leporatu didate.

—Nork? —galdetu zion Asierrek, harrituta.

—Liherrrek.

—Ona da bera bada, besteei ezer esateko!

—Egia da. Arkaitzen eta Landeren txanda zela eta Arkaitzek aukeratu nau, eta hain pozik jarri naizenez gero, Liherrrek harroa naizela esan du.

—Badakielako bera baino hobea zarela.

—Bai, to!

—Ez, eta zergatik, orduan?

Isildu egin ziren. Bere jokoaren inbidia zioten benetan beste mutilek? Agian, bere lekua egiten ari zen. Agian, guztiek jokatu nahi izango zuten bere taldean. Agian, pieza desiratua zen futbolerako. Agian, berak uste baino hobeena zen. Orduan, zergatik ez ziren lagunak berarekin alaitzen?

Liberrek esandakoari buruz pentsatzen jarraitzen badu, joan 35. orrialdera.

Kuadrillakoekin gertatutakoari buruz pentsatzen jarraitzen badu, joan 25. orrialdera.

Asteburuetarako planak egiten hasi ziren hamabi urterekin, ordurako eskolatik institutura salto egin zutenean, eta Laiatzentzat besteentzat baino zailagoa izan zen. Eskolako futbol-taldea utzita, liga aldatu egingo zen. Futboleant jarraitzeko aukera bakarra herriko kluba zuen, eta han ez zegoen emakumeen talderik, ezta mistorik ere. Eta herriko klubean leku bat aurkitzeko borrokaren erdian, hilekoa etorri zitzaion. Tragedia bat izan zen beretzat.

Bazekien halako batean gertatu egingo zela, baina justu orduan oso gaizki zetorkion ardura berriak hartzea. Beretzat (eta, bide batez, beste neska batzuentzat) herriko klubean lekua egiteak zuen lehentasuna. Hilekoa urtebete lehenago etorri balitzaio, ohituta egongo litzateke, klubeko bizitzara eginda egongo zen ordurako. Momentu horretan ez zeukan burua hormonon gorabeheratarako, esaten zion bere buruari, baina bere gorputza aldatzen ari zen.

Ez zuen talde bat osatzeko adina neska ikusten, eta eskolan bezala, talde mistoetan jokatzen jarraitzeko apustua egin nahi zuen. Ez zen erraza, ordea. Zenbat eta zaharrago, hainbat eta aukera gutxiago, eta hamaika gauzaz arduratu behar zuen taldea osatzeko: entrenatzailearekin hitz egin, klubeko zuzendaritzara joan, ez-dakit-nongo ligako ez-dakit-nori deitu, instituzioetan laguntza eskatu... eta bitartean, bere gorputz berria ezagutu behar zuen. Hilekoak abisua eman zion gauzak aldatzen ari zirela: bularrak hazteak, gorputzean ilea ateratzeak... ez zuten futbolarekin zerikusirik izango, baina bizitzako

erabaki txikietan ere eragina izango zuten seguruenik. Mundua erori egin zitzaiola sentitu zuen. Talde mistoa sortu nahian zebilen, eta bazekien mutilekin bere gorputzaren erreakzioei buruz lasai hitz egin ezin zuela, batzuetan ehuneko ehunean ez zegoela kontatu ezin izango ziela, edo obulatzen ari zen egunetan korrika egitean bularretako mina zuela ulertuko ez zutela. Nola galdetuko zien hamabi urteko piztia haiei ea kopa ala tanpoiak erosoagoak ziren? Zerbait apurtu zitzaion. Harremanak konplikatu egingo zitzaizkiola iruditzen zitzaion.

—Hilekoa etorri zait —esan zien lagunei.

Neskato inozoa balitz bezala begiratu zioten. Gehienei etorri zitzaien jadanik eta besteek bazekiten. Bera zen horren berririk ez zuen bakarra. Arrakala, berriz ere. Bera ez zegoen haiekin gauza intimoak kontatzen zituzten bakoitzean, baina askotan haiek ere ez zuten gauzak errepikatzeko ardurarik hartzen edo mezu bat bidaltzeko ahaleginik egiten. Bazekien gauza asko galtzen ari zela. Harrituta sentitzen zen. Pentsatzen zuen, alde batetik, talde mistoa ez lortzekotan hil egingo zela eta, beste alde batetik, bere gauzei buruz hitz egiteko aukerarik gabe ere hil egingo zela. Futbol-taldea eta lagun-taldea behar zituena eta han zegoen, beti bezala, gauza guztiei indarrez eusten munduaren erdian bakarrik ez gelditzeko.

Gurasoek entzun eta entzun egiten zuten, eta ea psikologoa behar zuen galdetu. Ez zuten ulertzen. Munduak ez zuen ulertzen. Edo okerragoa zena: munduak ez zuen

ulertu nahi bere buruan gertatzen ari zena. Amamarenean zegoen egun batean bota zuen:

—Hilekoa etorri zait.

Bada, bere harridurarako, amama izan zen ondoen hartu zuena.

—Hara, gure neska txikia hazten ari da! Mutil artean ibiltzen zara zu, ez hitz egin halakoez konfiantzarik ez duzunekin, barre egingo dizute eta...

—Barre? Amama, gaur egun, edonork daki hamabi urterako hilekoa zer den!

—Bada, horrexegatik, ume! Adin horretan txotxolo samarrak izaten dira mutilak. Lehengoak hala izaten ziren, behintzat! Edozein aitzakiaz baliatzen dira min emateko edo burla egiteko. Zeure burua babestu eta gauza intimoez konfiantzazko eremuetan bakarrik hitz egin behar duzu. Oraindik ere hilekoa emakumeon kontua da bakarrik mundu honetan (eta besteetan ere bai, seguruenik).

—Orduan, zer egin behar dut, ezkutatu?

—Ez, ume! Ezkutatu ez, eta mundu guztiari kontatu ere ez. Orain daukazuen materialarekin inork ez dizu ezer igarriko, ezta praka labur horiekin jokutzen ari zarenean ere.

Ez zekien ulertu zuen, baina seguruenik arrazoia izango zuen amamak; berak ez zien bere lagunei ezer igarri. Beraz, berari ere ez zitzaion ezer igarriko, gauzak okertzen ez

baziren. Baina ez zeukaten gauzek zertan okertu. Agian minik gabeko hilekoak izango zituen. Eta mina izatekotan, zerbait hartuko zuen farmazian hobeto sentitzeko. Lehentasuna talde mistoa osatzea zen oraindik ere.

Jokatu egin nahi zuen. Negoziazioak ez zituen gaizki bideratuta ikusten. Gurasoek babestu egiten zuten eta ez zegoen bakarrik. Beste bi neska bazeuden. Horrek indarrez saiatzeko ahalmena eman zion. Beste eskola batzuetakoak ziren eta herriko klubean hirurak batera sartu nahi zuten talde misto batean. Azkenik, lortu zuten eta mutilek haien presentzia onartu egiten zuten, nahiz eta horrek haien liga ere apur bat mugatu. Auskalo banan-banan zer pentsatuko zuten mutil horiek, baina taldean, talde mistoaren aldeko apustua egiten zuten.

Joan 62. orrialdera.

Azkenean, izena eman zuen dantzako eskolan. Astean behin joaten zen, eta futboleko entrenamendu bat galtzen zuen. Baina Laiatz ez zegoen pozik. Dena malda gora egiten zitzaion, arropetatik hasita: galtza elastiko osoa janzten zuten batzuek eta praka estu-estuak eta *bodya* besteek. Aukera bata zein bestea izugarria zen Laiatzentzat.

—Neska, irribarre ere egin dezakezu dantzan ari zarenean!

Puzka erantzuten zion irakasleari hori esaten zion bakoi-tzean, eta askotan esaten zion. Bazekien tentsioan dantzatzen zuela, bere burua gelako ispiluan ikusi egiten zuen. Besteek erlaxatuta ziruditen, baina berak tente baino tenteago egiten zuen dantza, ipurtzulotik erratz bat sartu izan baliote bezala. Ez zitzaion gustatzen, ez zen eroso sentitzen, mugimenduak ez zitzaizkion ateratzen eta barregarri geratzen zela sentitzen zuen. Eskuak airean mugitu, pinoa egin, buelta eman, aurrera joan, lurrera salto, makurtu eta burua jaso... Lotsa ematen zion jendearen aurrean halakoak egiteak.

Eskerrak astean behin baino ez zen joaten. Besteak egun bitan joaten ziren, baina berak entrenamenduekin konbinatu behar zuen dantza. Astean zehar eskolan ikasitakoa praktikatu behar zuen, baina zer esanik ez, askoz nahia-go zuen edozer hori baino. Futbolean jokatzeko denbora galtzeaz gain, sufrimendu handia izaten zen berarentzat. Psikomotrizitateak huts egiten zuela uste zuen batzuetan.

—Hori gertatzen zaizu dantza gustatzen ez zaizulako — esan zion bere nebak.

—Eta zuk nola dakizu hori?

—Laiatz, egiten dituzuen koreografiak ez dira zailak, neuk ere egingo nituzke!

—Bada, ez zaizkit ondo ateratzen.

—Ala, ala! Gustatzen ez zaizulako —esan zion berriro—. Nik uste dut denbora galtzen ari zarela, eta zuk ere bai!

Egia zen. Berak ere horixe uste zuen.

—Agian astean bi aldiz etorri behar zenuke —esan zion dantzako irakasleak.

—...

—Ez duzu hain gaizki dantza egiten, baina kostatzen da egiten zaizu besteei jarraitzea.

Hori gehiegi zen. Ez zuen birritan dantzatzeko eskolara joan nahi eta horretatik libratzeko edozein aitzakia asmatzeko prest zegoen. Dena den, ez zuen ezer asmatu behar, dantza kolektibo horretan ez parte hartzeko arrazoirik onena zeukan eta: ez zuen nahi. Ez zitzaion gustatzen.

Beste alde batetik, amama hainbeste poztu zen dantzatzen hasiko zela esan zionean...

Dantzatzen jarraitu zuela uste baduzu,
joan 72. orrialdera.

Dantzatzen jarraitu ez zuela uste baduzu,
joan 43. orrialdera.

Kuadrillakoen hizkuntza arrotza egiten zitzaion askotan. Astelehenetik ostiralera leku berdintsuetan ibiltzen ziren lagun gehienak: musika-eskolan, dantza-eskolan, notak hobetzeko klase partikularretan... Berak, ostera, futbol-zelaiaren inguruan ematen zuen ia aste osoa. Kuadrillakoek, nahiz eta agenda berdina ez izan, elkarrekin egoteko tarte txikiak izaten zituzten. Ordu erdi bat plazan, ordubete liburutegian... berak ez zeukan inoiz astirik.

Asteburuan elkartzan ez zirenean, haien arteko arrakala nabarmendu egiten zen: astelehenetik ostiralera zapatuan gertatutakoaz hizketan egoten ziren, eta bera ez zen elkarrizketaren parte sentitzen. Askotan ez zen jabetzen zertaz ari ziren ere. Garazi haiekin egoten zenean errazagoa zen guztia. Gutxienez, galdetu egiten zion ea nola zihuan futbola edo azken partida irabazi zuten. Ez zeukan argi erantzuna interesatu egiten zitzaion, baina galdetu egiten zuen gutxienez.

Bere buruarekin zintzoa zen egunetan, onartzen zuen lagunak elkarrizketak berdin zitzaizkiola: beste kuadrilla bateko mutilak, umetan jasaten ez zituzten beste neska batzuekin orain zituzten harremanak, zinema... besteen onarpena behar zuenean, ordea, gaizki pasatzen zuen.

Futbolekin berarekin ari ziren mutilekin harreman ona zuen, baina haiek «nesken» gauzei buruz ez zuten hitzik ere egiten. «Nesken» gaiak aipatzen bazituen, isilik gelditzen ziren. Gainera, futbolarekin edo taldearekin zerikusirik ez zuten gauzetarako ez zioten deitzen. Taldekideak ziren, baina gero bakoitzak bere bizitza zeukan.

Hiru neska zeuden taldean, baina beste biek askotan esaten zioten ezin zutela presioa jasan. Batzuetan ez ziren entrenamenduetara joaten beste zerbaiz zutelako. Berak pasioz bizi zuen futbola, baina ulertzen zituen neska haiek. Mundu guztiak asko eskatzen zien, eta futboleant emango zituzten pausoak mugatuak ziren. Ez ziren gizonak. Ez zuten diru asko irabaziko. Eta hori gutxi balitz, lagunak presioa zeukaten.

Hamahiru urterekin inork ez du kuadrillarik gabe ibili nahi; ez Euskal Herrian, behintzat. Gurasoek, nebak, taldekideek, entrenatzaileak, irakasleek ere beren kuadrillaz hitz egiten zuten... eta hor zebilen bera inon kabitu ezinik. Ingurutik jasotzen zuen mezua garbia zen: talde batean bat etortzen ez bazen, bera zen arazoa.

Ez zekien zer egin. Taldeari eutsi behar zion ala kuadrillakoekin zuen harremana hobetzen saiatu behar zuen? Taldeko neskekin edo bere lagunekin hitz egitea erabaki zuen, bere burua argitzeko. Taldeko parte izan nahi zuen, baina bietakoa. Bazirudien, ordea, bakarraren parte izan zitekeela.

Kuadrillako neskekin hitz egiten badu,
joan 27. orrialdera.

Talde mistoko neskekin hitz egiten badu,
joan 109. orrialdera.

Zer egin dezake neska nerabe batek bere lagunekin bat etortzeko? Laiatzek horixe galdetzen zion bere buruari etengabe. Bere buruari erantzun ezin zionez gero, airera bota zuen galdera asko pentsatu gabe:

—Zuen ustez, zer egin beharko nuke desberdina ez izateko?

Isiltasunak harritu egin zuen. Elkarri begiratu zioten bere kuadrillako neskek. Bazirudien zerbait oso larria edo arraroa edo lekuz kanpokoa esan zuela. Baina berak sentitzen zuena horixe zen: ez zen besteak bezalakoa, ez zitzaizkion gustatzen besteei gustatzen zitzaizkien gauzak.

—Eta zuri nork esan dizu desberdina zarela? —galdetu zion Junek.

Min eman zion galderak. Iruditzen zitzaion lagunek uste zutela bera ez zela berezia ezta desberdina ere. Arrazoia zuten seguruenik.

—Badakit ez naizela berezia! —esan zuen haserre—. Eta, aldi berean, badakit egiten dituzuen gauza askotan ni parte ez naizela.

—Laiatz, guk badakigu guri gustatzen zaizkigun gauzak gustukoak ez dituzula —esan zion Junek.

—Bada, ez. Hala ere, ondo legoke saiatzea.

—Zertarako?—galdetu zion Anderek.

—Ea gustatzen zaidan jakiteko. Dantza, adibidez. Ez dakit horretan ona naizen ala ez, gustatzen zaidan ala ez, erritmorik ba ote dudan ala ez...

—Ea, nik ez dizut esango ez etortzeko, baina ondo pentsatu behar duzu egin nahi duzun ala ez.

—Hortik hasita, badirudi ezetz, ez duzula ni dantzara joatea nahi.

—Ez dizut hori esan —esan zuen Anderek.

—Guk ez zaitugu ezer egitera derrigortu nahi, gu zure lagunak izango gara beti —esan zion Leirek.

—Bai, hori esan egiten diogu elkarri, baina gero ez naiz kuadrillakoa sentitzen. Gauza asko galdu egiten ditut zuek zaudeten lekuan ez nagoelako, eta horrek min ematen dit.

—Gure amak esango luke dena ezin dela —esan zuen Junek.

—Bada ez... —hasperen egin zuen Laiatzek, agian inbidia apur batekin.

Berak gura zuen hori egitera energia asko bideratzen zuen. Besteak, berriz, gorabehera handirik gabe bizi ziren.

—Beno, proba egin dezakezu —esan zuen Leirek.

—Zertarako? —erantzun zuen Laiatzek.

—Ea, Laiatz! Zeuk esan duzu ez duzula baztertuta egon nahi, ezta? Dantza ere bada kirola.

—Ai, gauzak argiago banitu...

—Eta ez dituzu, ala? —galdetu zion Anderek—. Gure ustez, zu zara zer egin nahi duen argien duena.

Harri eta zur geratu zen Laiatz hori entzutean. Bazuen lagunek mirestu egiten zuten zerbait. Ederto! Aproba egingo zuen. Bolada batez dantza-eskolara joango zen eta gero gerokoak.

—Zer egingo duzu? —galdetu zioten lagunek.

—Jarraitu.

—Ondo pentsatu, Laiatz. Badakigu futbola asko gustatzen zaizula, baina ikasketak konplikatzen ari zaizkigu eta entrenamenduetan gero eta ordu gehiago eman beharko dituzu.

—Jarraitu egin nahi dut.

—Denbora asko galduko duzu Leioaraino joaten.

—Ez dut futbola utzi nahi. Saiatu egin nahi dut.

Gidabaimena izateko hiru urte falta zitzaizkion, eta Gernikatik Leioara iristea ez zen munduko gauzarik errazena garraio publikoa erabili nahi izanez gero. Laiatzek ez zeukan argi nola eutsiko zion egoerari, baina amore ematetik urrunegi zegoen. Ordura arte talde mistoetan ibili zen arren, hamabost urte bete eta gero, nesken talde bat aurkitzera behartu zuten. Mutilekin batera jokatzeko adina gainditu egin zuela esan zioten eta, dena den, bera zen taldean gelditzen zen neska bakarra. Aurreko urtean ez ikusiarena egin zuen klubak, baina gauzak zuzentzeko beharra sentitu zuten. Ordutik aurrera mutilek haien liga izango zuten, eta berak aurkitu egin behar zuen berea. Berak bakarrik.

Ez zeukan lekurik ez herrian ez inguruko herrietako klubetan. Aukera bakarra Leioan zegoen. Behar zuen aparteko denbora eta, horretarako, pianoko klaseak utzi behar

zituen. Pianoa jotzea izugarri gustatzen zitzaion, ez zen justua. Bere adineko mutilek ez zuten futbolarengatik ezer utzi behar. Bere adineko neskek ez zuten dantza edo antzerkia edo pintura egiteagatik ezer utzi behar, eta berak, hamabost urte mokorekin, aukeratu egin behar zuen. Zaila egiten zitzaion. Ez zuen ezer utzi nahi, baina esaten den bezala, zurrut egin barik ez dago zopa jaterik.

Futbola utzi egin zuela uste baduzu,
joan 100. orrialdera.

Pianoa utzi egin zuela uste baduzu,
joan 32. orrialdera.

Piano-irakasleak sorpresarik gabe hartu zuen berria:

—Zerbait lortu gura duenak lan eta lan egin ez ezik, tar-teka gauza batzuk baztertu ere behar ditu.

—Ez dut argi klaseak utzi nahi ditudan ala ez, baina ez dut beste aukerarik.

—Lasai, Laiatz, ez ito hasi aurretik.

—Mila buelta ematen ari naiz eta etxean esaten didate ondo pentsatzeko, futbol hutsetik biziko ez naizela...

—Eta pianoa jotzetik bai, ala? Begira, zuk ez dakizu pianoko klaseak utzi nahi ote dituzun, baina badakizu futboleant jokatu nahi duzula. Beraz, premisa garrantzitsu batetik abiatzen zara zalantzak argitzeko: badakizu zer den benetan nahi duzuna.

—Eta inora iristen ez banaiz? Urtebete igaro eta gero, nekatu egiten banaiz?

—Nora iritsi behar duzu, bada? Zu hasi ibiltzen, eta gozatu bidez.

—Gurasoengandik espero nituen zalantzak, baina kua-drillakoek ere esaten didate amore emateko, amaitu dela onartzeko.

—Zer amaitu da?

—Talde mistoen abentura eta, horrekin batera, futboleant jokatu eta lehiatzeko aukera. Agian, hau niretzat ez dela,

edo honetatik biziko ez naizela, edo garrantzitsuak diren gauzak beste batzuk direla onartzeko momentua heldu da. Denek esaten didate «onartu egin behar duzu», baina nik ez dakit zer onartu behar dudan. Bai, onartzen dut talde mistoen kontua amaitu zaidala, baina horregatik ez daukat futbola utzi beharrik!

—Talde mistoak? Hori baino gezur handiagorik! Hara, Laiatz, agian, egunen batean, talde mistoak benetakoak izango dira eta futboleko kategoria guztietan jokatuko dute emakumeek eta gizonak elkarrekin, baina momentuz, futbolean gizonak dira nagusi. Liga guztiak edo gehienak haienak dira, eta zu haien gonbidatua baino ez zara. «Jokatu gurekin» esaten dizute, baina zer gertatu da gauzak konplikatu direnean? Zer esan dizute?

—Ezin dutela ezer egin, gauzak horrela daudela.

—Jakina gauzak horrela daudela! Baina zergatik daude gauzak horrela? Klubeko gizonak kanpoan gelditzeko arriskurik ez duten bitartean, ez dute benetan zure egoera ulertuko. Seguru zaude ezin dutela ezer egin zu taldean izateko? Ezin izan dituzte aurreko urteetan zurekin ibili diren neskak zaindu, mimatu... eta nesken talde baten aldeko apustua egin? Eskola kirolaren jarraipena egitearekin nahikoa daukate taldea sortzeko.

—Esan didate ahal izan duten guztia egin dutela, eta hor-tik aurrera bakarrik gelditu naiz. Ni ibili naiz taldeen bila.

—Bai? Benetan? Benetan sinisten duzu zure alde ezer egin ezin izan dutela? Ezin al zizuten Leiorako garraioan lagundu? Edo zirkuitu bat antolatu beste herri batzuetan zure moduan daudenekin taldeak osatzeko?

—Agian bai.

—Bada horixe berori! Emango duzun pausu honek gonbidatu izatetik protagonista izatera eraman zaitzake eta zure lekua bilatzen lagunduko dizu. Horretarako, bidesari batzuk ordaindu behar dituzu.

Bidesariak: errepide lasterretan ibiltzeko ordaindu behar izaten den dirua. Musikako irakasleari entzunda, argi zegoen erabaki beharreko azken aldia izango ez zela. Bere buruari bere historiaren protagonista izan nahi zuen galdetu zionean, erantzuna ia galdetu aurretik etorri zitzaion burura: «Bai, Laiatz, nahi duzu! Horixe nahi duzu!».

Joan 74. orrialdera.

Liherrak esandakoa bere barruan biratu zen denbora luzean, eta bere burutik aldentzen lortu zuenerako, lagunak hitz magikoa etorri zitzaion burura: dantza! Bera zen nesken artean dantzarako interesik ez zuen bakarra, Garazi kenduta. Ez zitzaion dantza interesatzen: eskolarekin, futbolarekin eta musikako klaseekin nahikoa zeukan. Zertarako dantza? Horixe baino ez zuen behar! Ez zitzaion mugitzeko modu arautu hori gustatzen; derrigor pausu jakin bat egin beharrak sutan jartzen zuen. Ez, hori ez zuten beretzat asmatu. Bere gurasoek abestu ohi zuten kantu batek esaten zuen bezala, «kantatu, maitatu eta dantza ezin bada, ez da gure iraultza». Ez zekien iraultza zer zen, baina dantzan egin behar bazen, berak ez zuen iraultzarik egingo.

Hala ere, zerbaitek esaten zion lagunak urruntzeko arrisku bizia zuela. Ez zekien non eta zergatik, baina bere barruan, hor nonbait, argi gorri bat piztu zitzaiola nabaritzen zuen. Ez zen dantzatzen ez zuen bakarra izango, baina azkenean, gehienek egiten bazuten, betikoak geratuko ziren talde-tik kanpora. Betikoak, arraroak, *freakiak*: musika-eskolan batera jotzen zutenak, manga gustatzen zitzaienak, bera, esperimendu kimikoak egiten zituen baten bat... bakarrik gelditzeko beldur zen. Askotan iruditzen zitzaion arraroen taldea askoz interesgarriagoa zela bestea baino, baina guztiek izan nahi zuten beste taldeko parte. Arraroak arraroak dira guztien begietara, eta Laiatzek ez nabarmendu nahiago zuen.

Lagunak dantzan egongo ziren denboran ez zen aspertuko. Ordura arte ere moldatzen zen bere gauzekin. Kontua da

igarri egiten zuela bere munduaren eta besteen munduaren artean amildegi bat sortzen ari zela. Garazi eta bera ziren besteen erritmora ez zebiltzan bakarrak. Garaziri ez zion ardua; bateria jotzea gustukoa zuen, kirola ez hainbeste eta, gainera, ez zen batere abila. Horrenbestez, orduak ematen zituen burua komikietan sartuta, telesail arraroak ikusten zituen... Tarteka lagunekin elkartzen zen eta, bestela, bere gauzak bazituen. Inbidia zion Laiatzek. Nahiz eta gero eta gutxiagotan gertatu, batzuetan Garazi kanpoan nahita uzten zuten. Laiatzek bazekien Junek deitzen ez ziola edo WhatsAppeko taldetik bota nahi zuela.

Laiatzek ahalegin handia egiten zuen beraren eta lagunenen arteko distantzia laburtzeko, baina arrakala hor zegoen. Eta zergatik saiatu behar zuen beti berak distantzia laburtzen? Garazik barre egiten zion ozenki pentsatzen hasten zenean:

—Laiatz, arraroak gu gara!

—Kaka zaharra!

Hamaika urterekin argi zeukan ez zeukala besteekin zerikusirik! Garazi joan egiten zen Laiatzen partidak ikustera. Agian, bere lagun min bakarra zen, eta bera beti ari zen besteen onarpenaren bila.

Etxean, idazmahaiaren aurrean eserita, koaderno irekita zeukan Laiatzek baina ezin zuen han jartzen zuena irakurri. Burua hain beteta zuen, ezen leher egingo ziola pentsatzen baitzuen. Ez zuen dantzan izena eman nahi, baina

nahi zuen; eta nahi zuen, baina ez zuen nahi. Ez zitzaion dantza piperrik ere gustatzen, baina bazekien mundu guztiak taldeka funtzionatzen zuela bere herrian, eta ez zuen talde batean ere beretzako lekurik ikusten. Mutilek futboleant jolasten zuten berarekin, baina haien gauzak zituzten. Neskekin babestuta sentitzen zen, baina ez zitzaizkion haiek egiten zituzten gauzak gustatzen. Zergatik egin behar zituzten neskek gauza batzuk eta mutilek, beste batzuk? Zergatik ez ziren bere lagunak poztan futboleko taldeak egitean lehenengo aukeratu zutela esaten zienean?

Laiatz dantzatzen hasi zela uste baduzu,
joan 23. orrialdera.

Laiatz dantzatzen hasi ez zela uste baduzu,
joan 19. orrialdera.

Gauza berrietan beti gertatzen den bezala, hasieran ederra izan zen dena. Ilusio handia zuen denarekin: jendea ezagutzea, kirol-instalazio ganorazkoetan jokatzeko, metroan irakurri ahal izatea, autobusean siesta egitea, etxeko lanak egiteko ere erabil zezakeen bidaia... denborarekin, ordea, bidaia gero eta luzeagoa egin zen. Astean lau egunetan joaten zen Leioara: 14:30etan klasetik irten, etxera heldu, bazkaldu, ahal zituen etxeko lanak aurreratu, kirol-poltsa hartu, 16:00etako autobusa hartu, 16:45etan Bilbora heldu, metroa hartu, Leioan beste autobus bat hartu eta 18:00etan entrenamendua hasi. Astuna egiten zitzaien joatea, eta astunagoa itzultzea. Gehienetan, Bilbon korrika eta presaka ibili behar izaten zuen azken autobusa hartzeko. Gero eta nekatuago zegoen: asteburuan partidak jokatzeko, gorputza arrastaka eramaten zuen leku batetik bestera. Ez zen jasangarria.

Hala ere, bere ametsari irmo eutsi zion. Uste zuen gurasoek edo bere inguruko nagusiren batek amore emango zuela eta kotxez eramango zuela entrenamendura, baina inork ez zion esan eusteko edo ondo jokatzeko zuenik edo egiten ari zenak merezi zuenik. Bere ahalegina ezerezean amiltzen ikusten zuen, eta egun batean futbola uztea erabaki zuen. «Bihar ez naiz etorriko», esan zion taldekideei eta kito.

Hasieran, ez zekien nondik hasi, baina zerbait egin behar zuen egunak betetzeko. Ordura arte arnasa hartzeko ere astirik gabe ibiltzen zen hara eta hona, eta zerbait egin behar zuen eta pianoko klaseetara itzuli zen. Pianoa jotzen

zuenean, burua hustu egiten zitzaion. Atea zabaldu zuenean, urte bi lehenago agurtu zuen irakaslea aurkitu zuen. Laiatzek irribarre lotsatia egin eta esan zuen:

—Banator berriz.

Irakasleak ez zion ezer esan. Partiturak eman zizkion, lehen ere egiten zuen bezala, eta bizkarra ondo kokatu zion. Eskuak nola jarri gogoratu egiten zuen oraindik Laiatzek eta emandako notak jotzen hasi zen. Begiak itxi zituen eta negarrari eman zion halako batean.

—Lasai, Laiatz —esan zion irakasleak—, bizitzak eman-go dizu amets berriak eraikitzeko aukera.

Ez zuen amets berririk nahi. Izan zuen amets bakarrerako laguntza izan balu sikiera! Benetan saiatzeko aukera izan balu! Baina ez. Trabak baino ez zizkioten jarri lehertu arte, eta orain iruditzen zitzaion mundu guztia poztu egiten zela futbola utzi egin zuelako. Ez zuen sinisten aurpegi batean ere pena ez ikustea. Zelako urte bi pasatu zituen, ahalegin betean, nahi eta ezinean, eta inork ez zion laguntzarik eman.

—Medikuntza ikasiko dut —esan zion irakasleari.

—Ondo! Hori bada nahi duzuna, aurrera!

—Nahi dudana? Bost axola nahi dudana! Inork ez dit lagundu. Sei hilabete eman ditut bueltaka eta gurasoek hiru aldiz bakarrik eraman naute kotxez. Bakarrik utzi ninduten baloiaren atzetik eta baloia nire bizitza zen.

—Lasai, Laiatz. Saiatu egin zara, eta sekulako balioa erakutsi duzu. Orain erreferentea izan zaitezke beste batzuentzat. Nik ez dut uste porrot egin duzunik. Zu saiatu zaren moduan saiatuta, beste amaiera bat merezi zuela honek? Ados. Baina gelditu lortu duzunarekin, ez lortu ezin izan duzunarekin.

Klasea amaitu baino lehen irten zen. Nonbait aurkituko zuen bakea, baina momentu horretan ez zegoen ezer. Etxerako bidean ume asko ikusi zituen parkean futbole. Mutilak nagusi, baina hainbat neska ere bazebiltzan. Pena hartu zien.

Etxera heldu eta berehala, gelara sartu eta ikasten hasi zen, nahiz eta bazekien, pozik izateko, bere ametsari eutsi behar ziola.

Medikuntza ikasi zuela uste baduzu,
joan 81. orrialdera.

Leioara itzuli zela uste baduzu,
joan 41. orrialdera.

Lehen asteak gogorrak egin zitzaizkion. Autobusa, metroa... oso astuna zen. Amak edo aitak kotxez eramaten zuen Leioara noizean behin, baina Laiatzi gustatu litzaiokeen baino gutxiago. Egia esan, Leiorako bidea oso gutxitan egiten zuen kotxez. «Zure ametsa, zure ardua», esaten zioten.

Laiatz eta kuadrillako neskak gero eta desberdinagoak ziren: TikTok eta *perreoa* haien buruak okupatzen ari ziren, eta berak ez zeukan horretarako nahi adina lekurik; ezta astirik ere. Berak ere mobileko aplikazioak eta sare sozialak erabiltzen zituen, futbolarekin zerikusia zuten gauzak komentatzeko eta erakusteko: bera txandalarekin, maletarekin, autobusean, baloiarekin, beste taldekideekin, futboleko elastikoarekin, aldagelan... Tarteka, asteburuan mendira edo hondartzara joaten bazen, beste argazkiren bat igotzen zuen.

Azterketa garaian, eztarran zeukan soka estutzen zitzaiola sentitzen zuen eta amets egiten zuen arnasarik hartu ezin zuela. Izerditan blai esnatzen zen eta hozkailura buelta bat egin behar izaten zuen tripako hutsunea betetzeko. Psikologoak azaldu zion sentitzen zuen hutsune hori falta zuen beste zerbaiten metafora zela.

—Ez da psikologia ikasi behar gertatzen zaizuna ulertzeko —esan zion—. Egin nahi duzuna egiten jarraitu ahal izateko, beste guztia perfektu egitera derrigortzen zaituzte, eta hori presio handia da zuretzat. Beno, zuretzat zein beste edonorentzat. Presio horrek antsietatea sortzen du eta antsietatea zulo bat da berez. Batzuek anfetami-

nekin betetzen dute, beste batzuek arropa garestiekin, antidepressiboekin, makina txanponjaleekin, janariarekin... Lasai, zuri gertatzen zaizuna jende askori gertatzen zaio. Horrek ez du esan nahi erraztasunez aurrera egingo duzunik, baina behintzat ez daukazu hain diagnostiko konplikatua. Zulo hori zerk eragiten dizun jakinda, zure emozioak kudeatu eta orekatu behar dituzu. Horrek lagunduko dizu jateko gogo aseegin hori kudeatzen.

On egiten zion terapiak, bere lekua aurkitzeko bidean lagundu egiten zion terapeutak. Psikologoarekin beti ados ez egon arren, gomendatutako guztia egiten zuen. Terapiak osteko orduetan kezkatu ohi zen, hala ere. «Ulertu dut esan didana? Nola aplikatu nezake hori nire eguneroko bizitzan?», galdetzen zion bere buruari. Futbol-taldeko zenbait neska zeuden terapian eta haiekin hitz egiten zuen bere egoerari buruz. Ez ziren oso desberdinak haien diagnostikoak. Azterketak pasatu ziren eta soka eztarrian sentitzeari utzi zion, amesgaiztoak ere desagertu ziren eta bizitza lasaitu zen.

Nerabea izan arren, bere ametsa betetzeko heldua zela erakustera behartuta zegoen. Pianoko klaseen mira zuen. Gustura joko luke berriz ere pianoa. Etorkizunean antolatzeke astia izango zuela pentsatu zuen. Eta halako gauzak pentsatzen zegoela, azkenengo autobusa galtzeko beldurrez korrika hasi, eta erori egin zen.

Joan 50. orrialdera.

Afaltzen ari ziren egun batean eztanda egin zuen bonba:

—Ez zait dantza gustatzen!

—Asko eutsi diozu! —esan zion amak.

Nola? Mundu guztiak zekien gustatzen ez zitzaiola eta inork ez zuen egoera aldatzeko ezer egin?

—Zure erabakiak zuk hartu behar dituzu, eta zuk jakin behar duzu zer eta noiz egin nahi duzun. Nahi ez duzuna baztertzeko gai izan behar duzu.

Arnasa hartu zuen. Haserre zegoen, oso haserre. Oso oso haserre. Oso oso oso haserre. Gaizki pasatu zuen hilabete luzeetan eta, gurasoen babesa bazuela jakin izan balu, beste modu batera kudeatuko zukeen guztia.

Amamaren erreakzioa ez zen hain ona izan.

—Behin nesken gauzak egiten zenituen eta...

Laiatzek makarroiak jaten jarraitu zuen begiak platerean iltzatuta. Amama bere buruarekin hitz egiten ari zen eta halakoetan ez zuen erreplikarik onartzen. Ozen ari zen, hala ere, Laiatzek ondo entzuteko moduan:

—Gure garaian ezin genuen mutilekin jolastu. Eskolan ere bereizita geunden. Eta ume hau haien manierak hartzen ari da! Sikiera...

—Amama —moztu zion Laiatzek—. Badakizu gauza bat? Olagarro batek garaje batean egingo lituzkeen mugi-

menduak egiten ditut dantzan. Mutilen manerak hartzea baino txarragoa da hori.

Barre egin zuten. Bazekien amamaren ilusioa zein zen, baina amamak ere bazekien berea zein zen. Horixe zen garrantzitsua.

Joan 19. orrialdera.

Berriz ekin zion entrenatzeari. Inoiz baino sutsuago zebilen. Entrenatzailea harritu egiten zuten haren ekiteak, ahaleginak, pasioak... Asko eskatzen zion bere buruari, baita taldeari ere. Malkoak zerizkion kapitain izendatu zutenean. Leioan familia bat aurkitu zuen, Asierrek esan zion bezala. Hilekoa zutenean, konpartitu egiten zuten mina, eta haien sentipenak azaltzea erraza zen. Guztiek erabaki bat hartzeagatik momentu gogorrak bizi izan zituzten eta guztiak egiten zutenarengatik epaituta sentitzen ziren. Zorionekoa sentitzen zen Laiatz. Taldekide zoragarri horiek izan ez balitu, ez zukeen taldera bueltatzeko indarririk izango. Entrenatzailea ere oso harro zegoen taldeaz.

Azkenean futbolak bilatzen zuena eman zion: leku bat munduan. Lagunekiko harremanak hobera egin zuen, eta haiek partidetara joaten hasi ziren Laiatz animatzera. Taldean, baina, bestelako konexio bat zuen. Erraz moldatzen zen. Pozik sentitzen zen. Zoriondu egiten zuten nota onak zituenean, etxeko gorabeherak entzuten zizkioten, futbolaz hitz egiten zuten, jokaldiak behin eta berriro ikusten zituzten haiek ere... Bera bezalako jendea aurkitu zuen.

Lesionatuta zegoenean, bere bizitza futbolik gabe nolakoa izango zen imajinatzen ematen zuen denbora, eta gris-grisa ikusten zuen dena. Gustatzen ez zitzaizkion gauzak egiten hasi zen. Futbola behar zuen, baina bere burua zaindu egin behar zuen. Fisioterapeutak mugak jartzeko agindu zion eta psikologoak, bere buruari eska-

tzeari utzi behar ziola. Gozatzeko bakarrik jokatu behar zuela. Alferrik. Ona izan nahi zuen. Egiten zuena ondo egiten zuela sentitu nahi zuen, eta munduari erakutsi nahi zion hartutako erabaki guztiak onak izan zirela.

Baina, zoritxarrez, bizitzak ez digu beti nahi dugun guztia ematen.

Joan 92. orrialdera.

—Atzerrira joatea ez da aukera bakarra, eta agian onena ere ez —esan zion amak.

Kristoren aukera iruditzen zitzaion Ingalaterrarako hegazkina hartzea, baina agian, itxaronez gero, Euskal Herrian ere izango zuen beste aukera bat. Azken batean, kilometro asko zeuden etxetik Manchesterrera eta bertigo handia ematen zion hara joateak.

Euskal Herrian gelditu zen azkenean.

—Agian, geurekoia da gure partetik, baina asko pozten gaitu zure erabakiak. Badakizu laguntzeko prest izango gaituzula beti —esan zioten gurasoek.

Unibertsitatean matrikulatu zen eta errutina estua ezarri zion bere buruari. Klase orduak, entrenamenduak, ikasteko orduak... Ingurukoek ikusten zuten egiten ari zen ahalegina eta lagundu egiten zioten makal zegoela ikusten zutenean. Medikuntza gogorra zen, baina okerrena zen ez saiatzea. Batzuetan futbolari ordu batzuk kentzen zizkion, beste batzuetan ikasketei; pasio handiz egiten zituena gauza biak.

Lagunak ez zebiltzan hobeto. Heziketa ikasi zutenek errazago zeukaten ikasaldia, moduluak laburrak izaten baitziren. Beste guztiek, ordea, zuzenbidea, arkitektura, injeniaritza... bezalako ikasketak eta bizitza kontrolpean izateko ahaleginak egiten zituzten.

—Neure burua ikusten dudanean, zutaz gogoratzen naiz askotan —esan zion Junek behin.

—Nitaz? Nola?

—Guri arraroak iruditu zaizkigu gurekin ondo egoteko, futbolean aritzeko eta ikasketei eusteko osatu dituzun puzzleak. Orain neu ibiltzen naiz pieza guztiak lotu ezinik: dantza, arkitektura, mutil-laguna, familia, lagunak... batzuetan ematen du ezinezkoa dela guztien aurrean ondo gelditzea.

—Eta horrelakoa da!

—Nola, horrelakoa dela?

—Ahaleginik handiena eginda ere, beti geldituko zara norbaiten aurrean txarto, beti egongo da norbait denbora gehiago eskaini behar diozula esango dizuna, beti pentsatuko duzu gehiago entseatu behar duzula edo nik zer dakit! Beti dago zerbait.

—Hala izango da, baina zer egin dezaket, orduan?

—Jarraitu. Jarraitu zuretzat onak diren gauzei eusten.

Horixe egiten zuen berak. Irakasle batzuek pentsatzen zuten burua klasean ez zeukala, entrenatzaileak pentsatzen zuen burua futbolean ez zeukala, gurasoek pentsatzen zuten haiekin gehiago egon behar zuela, lagunek pentsatzen zuten bere agendan azkenak zirela... Baina ez zegoen guztiei lekua egiteko agendarik. Orduan, azterketa garaian entrenatzailearen haserrea jasaten zuen eta, liga interesgarri jartzen zenean, unibertsitateko lana pilatzen zen. Baina saiatzan jarraitzen zuen eta emaitzak ez ziren txarrak.

Beti pentsatu zuen zerbait utzi behar zuela nahi zuena lortzeko, baina oraingoz ez zuen ia ezer utzi. Parrandarako eta aisialdirako denbora gutxiago gelditzen zitzaion, baina sakrifizio hori egiteko prest zegoen. Lantzean behin egoten zen goizaldera arte kalean, baina bestela plan errazagoak egiten zituen ingurukoekin: zinema, afari, kafetxoa, mendi buelta... eta lagunekin konpartitutako denbora horrek lanean jarraitzeko indarra ematen zion. Bazekien bere momentua heltzear zegoela.

Sekulako kolpea hartu zuen. Gogoratze hutsak min ematen zion. Tibia apurtuta zegoen, baina haustura garbia zuela esan zioten. Zorionez. Ez zuten operatu behar, baina ezkerreko hankan igeltsua eraman behar zuen berrogei egunez. Titularra izatekotan zegoen eta orain... Ez zen justua.

Hondoa jo zuen.

Taldekidetik asko idazten zioten, eta itzuleran egingo zizuten jokaldiez hitz egiteko deitzen zioten, baina berak ez zuen itzulera argi ikusten. Horrenbestez, eskolan zentratu zen eta bere notak hobetu ziren. Berrogei egunak igaro eta gero, errehabilitazioa egin behar zuen eta hilabeteak aurrera zihoazen. Denbora luzea igaro behar zuen berriro jokatu eta erritmoa berreskuratu arte. Eta, denboraren joan-etorria nahikoa ez balitz bezala, beldurrak geldiarazi zuen. Porrot egiteko beldur izateaz gain, bakarrik bidaiatzeari edo presaka ibiltzeari ere beldurra hartu zion azkenean.

—Beldur naiz, bertigoa daukat —esan zion Asierri.

—Oihuka ari zara gurasoei laguntza eskatzen! Oihuka! Zergatik ez diezu zuzenean eskatzen entrenamenduetara eramateko?

—Eramango ez nautelako: zure ametsa, zure ardura.

—Baina istripua izan duzu, eta haiek kezkatuta daude.

Egia zen, baina Laiatzek zalantza asko zituen.

Nola esango zien gurasoei laguntzeko? Bolada luze batetik bakarrik utzi zutela sentitzen zuen. Berak alaba bat

izango balu, entrenamenduetara eramán egingo luke. Ez zen normala bera ibiltzen zen moduan ibiltzea hamabost urterekin. Laiatzen ustez, ez zioten laguntzen futbola uzteko nahi zutelako.

Baina egia al zen hori? Laiatzek ez zuen bere gurasoekin horri buruz inoiz hitz egin. Litekeena zen erratua egotea. Gurasoekin eseri eta hitz egin behar zuen, baina ez zekien zer galdetu: «zuek nik futbola utz dezadan erabaki duzue entrenamenduetara ez eramatea?». Ez zirudien galdera egokia. Mila formula pasatu zitzaizkion burutik, baina guztiak trakets baino traketsagoak ziren.

Dena bertan behera uzteak ere ez zuen konbentzitzen. Hainbeste urte, hainbeste amets, hainbeste ahalegin... Ohituta zegoen bere buruari aurre egiten, bere beldurrak gainditzen. Ohituta zegoen bere ametsa beste gauza guztien aurrean jartzen, baina mundua lausotzen hasia zitzaion.

Baliteke haiek arrazoi izatea, bestalde. Aurrera egiteak merezi ez zuela. Eta berarentzat guztia amaitu bazen? Eta garaia bazen ikasketetan buru-belarri aritzeko eta futbolaz ahazteko?

Gurasoekin hitz egin zuela uste baduzu,
joan 112. orrialdera.

Dena utzi eta medikuntza ikasi zuela uste baduzu,
joan 81. orrialdera.

Dutxa bat hartu eta, ohi bezala, haietako batzuk zerbait hartzera joan ziren. Baina tabernarako bidean partidako mutilak aurkitu zituzten. Beren zain zeuden.

—Hemen doaz, puta guztiak batera —esan zuen partidand oihu gehien egin zuenak.

Euren bideari jarraitzen saiatu ziren, baina ezin. Berehala inguratu zituzten eta, ia konturatu gabe, bat-batean hogeiren bat mutil-multzo batek harrapatu zituen. Zazpiak zeuden eskuak buruan jarrita, eta mutilek fruta usteldua eta zaborretako paper zein plastikoak botatzen zizkieten.

—Orain, zer? —esaten zieten—. Ez al da inor etorriko zuek salbatzera?

Izugarrizko beldurra zuten. Mutilak joan zirenean, elkar besarkatuta negar egin zuten, eta gauean WhatsAppen bidez kontatu zuten gertatutakoa. Entrenatzaileak ezin zuen sinetsi irakurtzen ari zena. Klub osoa dantzan jarri zuten, eta hurrengo egunean entrenatzera joan zirenerako, guztiak zerbait egin nahi zuten. Beraiek, ordea, paralizatuta zeuden, beldurtuta.

Laiatzek ez zuen inoiz halako dardararik sentitu hantetan. Ezin zuen bere burua erabat kontrolatu. Arnasa hartzea kosta egiten zitzaion, eta bihotza paparretik ateratzeko moduan ari zitzaion taupaka. Beldur zen. Ihes egiteko, oihu egiteko gogoa zeukan. Eta, hala ere, zerbaitek hantxe gelditzera behartzen zuen: amorratuta zegoen. Lehenengo aldiz damutu zen futbolari hainbeste denbora

eskaini izanaz. «Hobe arte martzial bat ikasi izan banu», pentsatzen hasi zen. Jo eta akabatu egin nahi zituen mutil haiek guztiak: nortzuk ziren bada, euren duintasunaren gainetik horrela pasatzeko?

Hortzak ia apurtzeraino estutu zituen, baina begirada jeitsi egin zuen momentu batez. Inoiz ez zuen bere burua halako egoera batean ikusi eta bere buruak ere beldurra eman zion: amorru adina beldur sentitzen zuen, edo beldur adina amorru. Baina, poliki-poliki, emozio bat bestearen gainean nagusitzen hasi zen. Eta Laiatzen barruan hedatzen hasi zen hortzak estuarazi eta ukabilak itxiarazten zizkion bitartean.

Laiatz, batez ere, beldurtuta zegoela uste baduzu,
joan 68. orrialdera.

Laiatz, batez ere, haserretuta zegoela uste baduzu,
joan 54. orrialdera.

Denetik pasatu zitzaion Laiatzi burutik: planto egitea, ez jokatzeara, xingola moreak jartzea, manifestazioa egitea, sare sozialak lehertzea, traje beltzez zelaira irtetea, klubeko mutilak zerbait esatera derrigortzea, mutilak identifikatu eta haien kontra zerbait egitea... Entrenatzailea eta klubeko zuzendaritza neskek lasaitzen saiatzen ziren. Egia zen bortxaketarena mehatxua baino ez zela. Hala ere, amorrugarria zen halako gauzen apologia hain merke egitea. Gauza serioa zen. Zer zegoen mutil haien buruan? Zergatik zen barregarria neska bati (edo batzuei, kasu honetan) beldurra ematea? Kontua ez zen barre egitekoa.

Asteak eman zituen Laiatzek amorruren amorruez negarrez. Emakumeak izatearren gertatzen zitzairen hori guztia. Ez zen justua! Berak bazekien mutilen partidetan «bortxatu egingo zaituztegu» esaten zuen inor ez zegoela. San Mamesen ere ez zen halakorik esaten: marikoia bai, askotan. Horrek ere erakusten zuen jendearen amorruren oinarrian zer dagoen. Guztiontzat normala (eta, seguruenik, kaltegabea), baina Laiatzek ez zuen normalak ez ziren gauzak normaltzat hartzeko gogorik. Ez zuen halakorik berriro entzun nahi. Eta ez zuen nahi euren arazoa izan zedin: arazoa gizarte osoarena zen. Indarkeria matxista pairatzen zuten sistema patriarkal batean bizi zirelako. Ez zeuden horri eusteko prest. Zorionez, herria inplikatu egin zen. Udalbatzak moztio bat atera zuen gertatuak gaitzetsiz, Leioako herri osoa manifestazioan atera zen eraso matxisten kontra eta Gernikako sare feministak ere elkartasuna adierazi zion talde osoari.

Dutxako urak berotu ahala, haien arteko hizketak lasaitu egin ziren, baina ezin zuten beste ezertaz hitz egin. Gorputz hauskorrak zituztela, zaurgarriak zirela konturatu ziren bat-batean. Beldurrari buruz hitz egiten hasi ziren eta kezka, antsietatea, emakume izatea, onarpena... komentatzean, ireki berri zitzaien zauria ixteko denbora asko beharko zutela ulertu zuten. Mutil haiek marra gorri bat gehiago gurutzatu zuten. Ez zituzten ukitu, baina bai zapaldu eta umiliatu.

Terapiara joateko arrazoi bat gehiago zuen. Gertaera hark bere ardatzetik mugitu egin zuen. Berriz ere bilintzi-balantza ikusten zuen bere burua, bidetik ateratzeko zorian. Ez zuen amorerik eman nahi, baina ez zekien zenbat jasateko prest zegoen. Ez zuen matxismoaren kontrako borrokan bere gorputza apurtu nahi. Nahikoa zuen bere ametsari jarraitzearekin. Begiak itxi eta San Mames irudikatzen saiatu zen. Zein zen San Mamesera aldageletatik sartzeko bidesaria? Terapiak lagundu egiten zion bidean kontzentratzen eta bidesariak erlatibizatzen. Gertatutakoa, baina, ez zuen erlatibizatu nahi, oso gogorra izan zen eta.

—Ezin diozu guztiari intentsitate berdinarekin erantzun —esan zion behin psikologoak—. Badakit gertatu zaiuzena izugarria izan dela, baina ezin dituzu beste gauza guztiak horren parean jarri.

Orduan, astez aste gauza garrantzitsuak, premiazkoak eta garrantzirik ez zutenak bereizten hasi zen. Ordura arte, bere bizitzan dena zen tragikoa. Estutu egiten zen lagunekin

ez bazegoen, ikasketetan edo futbolean zerbait gaizki ateratzen bazitzaion, entrenatzailearekin edo gurasoekin eztabaidatzen bazuen...

—Gauza batzuk normalak dira. Nork ez du zure adinean gurasoekin eztabaidatzen?

Hori egia zen. Guztia ez zen tragedia bat, baina gauzak ez ziren aldatzen. Lehen mailan jokatzeko zuten neskak grebak egiten ari ziren baldintzak hobetzeko. Gehienek ikasketen presioa ere zuten, futbola utzi eta gero beste zerbait egin behar zutelako. Egunen batean erabat mistoa izango omen zen futbola, esan zion zuela urte asko irakasle batek. Hitz horiei eutsiz, lasaitu egin zen. Eta bere buruari esan zion gertatutakoa iraganean zegoela, halakorik berriro ikusiko ez zuela.

Laiatzek halakorik ez zuela berriro bizi izan uste baduzu, joan 59. orrialdera.

Laiatzek halakorik berriro bizi izan zuela uste baduzu, joan 64. orrialdera.

June, arrazoiz, haserretuta zegoen. Haiek, futbolean ari ez zirenak, ezin ziren lasai jolastu. Askotan gertatzen zen. Futbol-kantxa edo -zelaia patioaren erdi-erdian zegoen. Txirrinak jo bezain laster baloiarekin joaten zirenek okupatzen zuten, eta besteek bazterretan moldatu behar zuten. Futbolzaleek agindu egiten zuten jolastokian. Haienak ziren boterea eta espazioa. Baloia alde batera zein bestera botatzen zuten, eta ez zuten ikusi ere egiten besteak molestatzen zituztela. Barre egiten zuten bere bila joaten zirenean eta laster korerrean edo alboko sarea egiteko lekuren batean baloia kokatzen hasten ziren. Sokasalto, goma, saskibaloia, trukemea, kartak... nahiago zutenek oso espazio estua konpartitu behar izaten zuten, eta ez zen erraza. Laiatzen lagunak deseroso sentitzen ziren eta Laiatz ez zen horretaz konturatu June haserretu zen arte. Baina zer pentsatua eman zion gaiak. Pentsatu zuen ezer aldatzeko txikiegia zela, arazoa sistemikoa zen eta. Ez zen bere eskolan gertatzen zen kontua bakarrik; ikastetxe guztietan zuten arazo hori. Eta jolas-tokian agintzen ohituta zeudenez gero, askotan futbolzaleek herriko plazan ere agintzen zuten.

Horretan abantaila zuela ikusi zuen Laiatzek: berari gustatzen zitzaion aldea zen ikusten zena. Baina ez zen, ustez, berari zegokion aldea. Hortxe jartzen zizkieten trabak. Zorritzarrez, futbolean ibiltzen ziren gehienak mutilak ziren. Bazekien futbola beste neska batzuei ere gustatu egiten zitzaizela, eta horietako askok, nahi izanda ere, jokatu ez zutela. Bestalde, jakin ere bazekien mutil asko gustatu gabe aritzen zirela futbolean. Gauzek horrela izan behar zutela

esaten zuen zerbait bazegoen. Eta, horrela, berak futbolean jokatzeko kirol hori gustatzen ez zitzaizkien zenbait mutilekin, kirol horretan arituko liratekeen zenbait neska jolastokiko bazter batean soka saltoan aritzen ziren bitartean.

Laiatzek ez zekien azaltzen zer gertatzen zen. Ezta gertatzen zitzaionak eragiten ziona ere. Jendeak berari buruz hitz egiten zuen. Batzuek onerako, eta enfasi gehiegirekin animatzen zuten: «Aupa, neska!», esaten zioten. Neska izatea plus bat balitz bezala. Beste batzuei ez zitzaizkien hain ondo iruditzen bera futbolean aritzea: «Indarra falta zaitzu... Badakizu, fisikoki gogorragoak dira mutilak», esaten zuten paternalismoz. Eta berak, bere inguruko mutilak begiratu, barre egiten zuen. Agian, bere taldeko neska haiei ere ez zitzaizkien ondo iruditu berak futbolarekin amets egitea. Agian, ez zitzaizkien ondo iruditu haiek jolasean zeuden bitartean jolastokia okupatzen zuen taldean bera egotea. Agian pentsatzen zuten bere lekua bazterrean zegoela, baina berak ez zuen bazterrean egon nahi. Eta baloia hanka puntetan hartzen zuenean jipoitzen zituen mutil haiek? Bazekien ez zutela oso ondo hartzen berak irabaztea: «neska batek irabazi dizu?!», esaten zioten elkarri. Berarekin jolasteari buruz zer pentsatzen zuten, ordea, auskalo!

Bere lagunek benetan zer pentsatzen zuten jakin nahi baduzu, joan 105. orrialdera.

Futboleko berarekin ibiltzen ziren mutilek zer pentsatzen zuten jakin nahi baduzu, joan 107. orrialdera.

Oker zaude. Matxismoa gauza txikienetan ere badago. Laiatzek mundu hobea merezi zuen, baina berak ere mundu hobe horren alde borrokan egin besterik ez zeukan. Iritsiko da matxismorik gabeko mundua eraikitzen dugun eguna, baina oraindik asko falta da horretarako. Ia egunero jasaten dugu emakumeok genero indarkeria. Ez diote garrantzirik ematen guk esaten dugunari, gure ametsak betetzeko trabak jartzen dizkigute, sexualizatu egiten gaituzte, ez digute merezimendua aitortzen, kristalezko sabaiak daude lan egiten dugun enpresetan...

Zoritxarrez, Laiatzek horrelako edo antzeko egoeretan behin baino gehiagotan ikusi zuen bere burua.

Hogeita hamasei urte beteta, erretiroa hartzeko adina du dagoeneko. Jendeak utzi egiten du taldea lanean ardurak hartzeko, nekatu egiten delako, umeak izan nahi dituelako... Laiatzek ez du horretarako momenturik aurkitu orain arte. Beti izan du futboleko jarraitzeko aitzakia bat edo beste gauza batzuk ez egiteko motibo bat. Asko kostata, egun erdiz erizain gisa egiten du lan klinika pribatu batean. Ez du erizain arrunt batek adina irabazten, baina bizitzeko nahikoa badu. Gustatzen zaizkion gauzak egi-tearren ordaintzen diote, eta hori askoz garrantzitsuagoa da beretzat. Behar duen guztia dauka, ez du bizitzeko besterik behar: etxe txiki bat dauka eta gastuak ordaintzeko adina ere bai. Gauza materialak ez zaizkio bereziki interesatzen, eta lasai dago lortu duenarekin.

Gorputzak, ordea, ez dio lehengo moduan erantzuten. Hankek ez diote beti laguntzen nahi duen lekura nahi duenean iristen. Horrek ematen dio pena. Pena eta amorrua. Ez dauka lehengo abiadurarik, ezta lehengo indarrik ere. Jakintza teknikoa eta erabakiak hartzeko heldutasuna, aitzitik, baditu. Horretan onena izaten jarraitzen du. Hala ere, futbola uzteko ordua laster helduko dela badaki. Futbola da bere pasioa, baina beste gauza batzuk ere egin nahiko lituzke zahartu orduko.

Ez du omenaldirik nahi. Isil-isilik etxera joatearekin nahikoa dauka. Denboraldia amaitzen denean, prakak eta eskularruak gorde, eta beste gauza batzuk egiten hasiko da eta kito. Pentsatu behar du nora bidaiatu nahi duen, norekin egon edo zer egin nahi duen orain arte entrena-

menduek kendu dizkioten orduetan... Entrenatzaile iza-
tea ez litzateke ideia txarra izango. Batek daki! Oraindik
hogeita hamasei urte baino ez ditu.

Azken partida du gaurkoa. Azken aldiz jantziko du elas-
tiko zuri-gorria partida ofizial baterako. Amaitu da: kito.
Txalo asko jo diote astebururo Lezamara joaten izan di-
ren zaleek eta izugarri poztu da, hunkituta dago. Izan ere,
horiek dira hurbilen sentitu dituenak, hazten ikusi dute
eta. Entrenatzaileak eta klubak San Mamesen omendu
nahi dute, baina Laiatzek partida gehienak Lezaman
jokatu ditu eta zalerik fidelenak hor ere ezagutu ditu.
Egia da San Mamesen jokatzeari bere ametsa izan zela eta
hainbat aldiz bete duela, baina ez du inoiz fama lortzeko
jokatu eta horri eutsi egiten dio orain ere. Nahikoa ditu
taldekoen besarkada kolektiboa eta zaleen txaloak.

Etxera joan, sofan eseri eta botila bat ardo ireki du. Topa
egin dio aireari:

—Berriz jaioko banintz, berriz futbolari!

AMAIERA

Azken parrafoak irakurri badituzu, liburu guztia edo
ia guztia irakurri duzula esan nahi du. Beraz, irakurle
amorratua zaren seinale da: bejondeizula!

Behin taldea lortuta, betiko arazoak itzuli ziren. Aste barruan gogor entrenatzen ziren. Entrenatzaile jatorra baina gogorra zuten. Asko eskatzen zien, fisikoki zein teknikoki. Ez zen bere senetik atera partidak irabazten ez bazituzten, baina ondo entrenatuta errazago irabaziko zutela esaten zien. Horregatik, entrenamendu luzeak izaten zituzten. Institutuan ere lan asko egin behar zuen, musika praktikatu behar zuen, etxean laguntzeko eskatzen zioten, ez zuen kuadrillarekin distantziarik handitu nahi eta asteburuetan partidak jokatzen zituen. Etxean edo auzoan. Ez ziren inoiz oso urruti joaten, baina aste-bete leher eginda amaitzen zuen, eta gainerakoen ulertezintasuna jasan behar zuen:

—Zure adinean, nekatuta? Ni zure adinean ez nintzen nekatu ere egiten...

Ematen zuen guztiak (entrenatzailea, irakasleak, gurasoak...) ados jarri zirela komentario madarikatu hori egiteko. Zer jakingo zuten haiek, baina? Ez zioten ezer barkatzen. Eskatu baino ez zuten egiten. Eta berak kexarik txikiena azaleratzen bazuen, berehala esaten zioten esaldi magikoa:

—Badakizu zer egin: utzi ezazu futbola!

Arrrrrgggg! Ezin zuen hori jasan! «Zergatik da futbola nire arazo bakarra?», pentsatzen zuen. Eskola, lagunak, pianoa, familia... Ez zen futbola denbora kentzen ziona; beste guztiak futboleant lasai aritzeko denbora kentzen zion.

Inork ez zuen imajinatu ere egiten zenbat maite zuen joko hura: baloia hartu, harrapatu, hanketan erabili, libre dagoenari bota, berriz ere baletor adi egon eta, aukera dagoenean, sareetara jaurti. Sinplea zirudien.

Etxean inor ez zen futbolzalea, eta ez zuten jokoari buruz asko hitz egiten. Gurasoek Frantziako Itzulia jartzen zuten telebistan siesta garaian. Hori bai aspergarria! Futbola beste gauza bat zen: adrenalina, emozioa, gola, penaltiak... hiztegia bera ere ederra zuen. Estrategia ona behar zuen irabazi nahi zuenak, ez zen gorputza lehertu arte jarraitzea bakarrik.

Dena dela, mundua kontra izatea ez zen nesken arazoa bakarrik. Mutilei ere esaten zieten ikasketen edo futbolaren artean erabaki behar zutela. Oso onak zirenei, aitzitik, ez. Lehen mailara heltzearekin amets egiten zuten, eta ikasi gabe ere bizitza konpontzeko modua aurreikusten zuten. Guztiz bidegabea zeritzon Laiatzek!

«Futbol femeninoa ez da ez futbola ez femeninoa», esan zuen egun batean matematikako irakasleak. Guztiz amorratu zen Laiatz. Zenbatgarren broma izango zen hura? Hamar mila milioigarrena? Nazkatuta zegoen. «Fitbil fimininii iz di iz fitbili iz fimininii», errepikatu zuen bere barruan.

—Barkatuko didazu, baina nik futboleak jokatzen dut eta femeninoa naizela iruditzen zait —esan zion Laiatzek.

Isiltasunean geratu zen ikasgela. Beste ikasle bat Laiatzen alde agertu ahal izan baino lehen, ahorik zabalena zuen mutilak galdetu zion:

—Seguru zaude?

Laiatz sutan jarri zen. Zerbait igarri zuen urdailetik gora. Zutitu egin zen. Ahoa mugitzen zuen ezer esan gabe eta irakasleari begira gelditu zen.

—Lasaitu zaitez —esan zion irakasleak—, broma txiki bat baino ez da izan.

—Broma txiki bat? Izatekotan, bi eta handiak: zurea eta berea.

Ikasgelatik ospa egin zuen Laiatzek. Inork ez zion jarraitu. Amorruren amorruez negarrez, zuzendaritzara jaitsi zen.

—Zer dugu? Ikasgelatik bota zaituzte? —galdetu zion zuzendariak.

—Ez, neuk alde egin dut.

—Nola?

—Neuk alde egin dut klasetik, inork bidali gabe.

—Ezin duzu klasetik nahi duzunean eta nahi duzulako alde egin.

—Ez dut alde egin nahi dudalako. Arrazoiak izan ditut horretarako.

Gertatutakoa azaldu zion. Irakasleak esandakoa, mutilak egindako txantxa eta bere erantzuna. Ez zekien zer lortu nahi zuen gertaera hura azalduta, baina dramatismo handiz antzeztu eta imitatu zizkion esaldien tonua eta ikaskideen erreakzioa zuzendariari.

—Neska, horregatik ezin duzu klasetik alde egin! Ez da hainbesterako!

—Nola? Munduko gauzarik normalena iruditzen zaizu irakasle batek komentario hori egitea? Irakasle batek? Eta ikasle batek nire genero identitatea burlaz zalantzan jartzea?

—Beno, badakizu... gizartea astiro aldatzen ari da eta gauzak modu batera izan dira beti...

—Ez, ez dakit! Ez dakit zer esan nahi duzun eta ez dakit gauzak nola izan diren beti. Nik dakidana da kokoteraino nagoela. Kokoteraino halakoak entzuteaz eta barre egin beharraz, barregarria balitz bezala.

—Honela amaitu nahi duzu batxilergoa?

Ez zekien zer erantzun. Bera ez zen arazoa. Arazoa zen irakasle batek, eredu izan behar zuen pertsona batek, ikasleen aurrean halako komentariarik egin behar ez lukeela. Halako komentariarik ez luke inork inon egin behar, egia esan, baina irakasle batek eta ikasleen aurrean, gutxiago.

—Nik batxilergoa amaituko dut, bai, baina irakasle horrek komentario horiek egiten jarraitzen badu, nire atzetik datozenei ere min emango die. Eta hemendik hamar urtera ere zer esango diezu zuk ikasle horiei? Gauzak horrela izan direla beti? Agian, gaurtik hasita, baduzu gauzak aldatzeko aukera bat.

—Esango diot...

—Aizu, nik esango banio irakasle izatera iristen diren matematikariak ez direla ez irakasleak ez matematikariak, zer esango lidake berak? Eta zer egingo zenuke zuk?

—Hori begirunea galtzea da, berak hartzen duen moduaren arabera.

—Ah! Eta emakumezkoen futbola ez futbola ez femeni-noa ez dela esatea, zer da? Errespetuzko lorea?

Ez zuen ezer lortu. Klasera itzuli behar izan zuela esan zion zuzendariak, baina bera ez zen matematikako eskolara joan. Utikan!

Egin zezakeenaren gaineko ideia batzuk etorri zitzaizkion burura: megafono bat hartu eta klase guztietatik pasatu neskek ere futboleant ondo jokatzeko zutela oihukatuz,

irakaslearen kontrako kartelak jarri, klasera sartu eta aho zabal jaunari hostia bi eman...

Borrokan amaitu zuela pentsatzen baduzu,
joan 98. orrialdera.

Gauzak aldatzeko beste era bat aurkitu zuela pentsatzen baduzu, joan 77. orrialdera.

Shock egoeran zegoen. Psikologoak ezin zion beldurra kendu. Gauez, gertatutakoarekin amets egiten zuen. Gurasoek partida batera eraman ezin izango zuten egunean pentsatze hutsak ikaraz jartzen zuen. Ezin zuen gertatutakoa burutik kendu. Klubak babesa eskaini zien eta jende asko jarri zen taldearen alde, baina jendeak ez zekien mutil-multzo erdian egotea zer zen, edo izan zuten beldurra. Asmoa ona zuten, baina inork ez zekien nola sentitzen ziren.

Zelaian izan zuten jarrera lotsagarria izan zen, onartezina, baina, haizea hartzera bidaltzeko ahaleginak ekarri zue-na okerragoa izan zen. Eta gauza bera egiteko prest zeuden mutil gehiago topatzen bazituzten? Beldurra hezurretaraino sartu zitzaion.

—Lasaitu egin behar duzu, Laiatz —esan zion psikologoak.

—Nola?

—Badakit zaila dela, baina gertatu zitekeenaz edo etorkizunean gerta daitekeenaz pentsatzeari utzi behar diozu. Gertatu zena gertatu da. Hori da irentsi behar duzuna, ez beste guztia.

—Sei hilabete eman nituen bakar-bakarrrik joaten zelaira asteen lau aldiz. Sei hilabete. Pentsatzean oilo-ipurdia jartzen zait!

—Ez zitzaizun ezer gertatu!

—Ez, ez zitzaidan ezer gertatu. Baina, agian, hau da nik jasan dezakedan baino gehiago! Nik jasan dut klubak baztertu eta Leioara etortzea, nire adineko mutilek ni jokorako ez aukeratzea, nire kuadrillakoek ni ez ulertzea, nire amonaren kontu sexistak, gurasoen eta ikasketen presioa... baina hau gehiegi da. Kontua ez da jasan ezin dudala, jasan nahi ez dudala baino! Ni ez nago horretarako prest!

—Momentuz behin bakarrik gertatu da. Ez dauka errepikatu beharrik.

—Behin gertatu bada, norik esango digu berriro gertatuko ez dela? Asko ziren, eta batek ere ez zuen lagunak lasaitzeko ahaleginik egin. Zergatik gorroto gaituzte?

—Ez zaituztete gorroto zuek pertsonalki. Sistema patriarkala da. Gizonei gure gainetik egoten irakasten zaie eta batzuek ezin dute jasan zuek espazio publikoa okupatzea. Partidan, zuek zineten zentroa eta haiek, ikusle soilak. Gizon askok ez dakite hori kudeatzen.

—Nola ez dute hori kudeatzen jakingo? Ikusle soila izatea munduko gauzarik errazena bada! Zenbat aldiz ordainduko nukeen ikusle soila izatearren, eta ez beti erabaki zailak hartzeko behar hau...

—Zu ikuslea izatera ohituta zaude, emakumea zarelako. Gogoratzen zara zure kuadrillakoak non jolasten ziren umetan?

—Jolastokiaren ertzetan.

—Zenbat mutil egoten ziren ertzetan?

—Bat edo bi. Umetan neskekin ibiltzen zirenak.

—Eta zenbat mutil egoten ziren patioaren erdian?

—Ia guztiak.

—Bada, hor daukazu erantzuna. Ez da ezagueraz egiten dugun zerbait. Beno, batzuetan bai. Kontua da mutilei irakatsi egiten zaiela protagonistak izaten, erdian egoten, eta neskei mutilen espektakulu horretan ikusleak izaten.

—Ulertzen dut, baina oporrak behar ditut. Ez dut esaten futbola utzi egingo dudala, baina gauza gehiegi gertatu dira azkenaldian eta distantzia behar dut. Benetan zer nahi dudan aztertu eta zenbat arriskatzeko prest nagoen erabaki behar dut.

—Zure aukera da, polita, zure aukera da.

Joan 71. orrialdera.

Deskantsua eta gero dena amaitu zitzaion Laiatzi. Ez zeukan aurrera egiteko indarririk, ezta gogorik ere. Beldurra hezurretaraino sartuta zeukan eta horrela ezin zuen bidean aurrera egin. Bidegabea zen norbere ametsari uko egin behar izatea. Baina zer egin behar zuen Laiatzek?

Bere buruari esaten zion egin zuen ahalegin guztia eta gero, ametsak betetzeak merezi zuela. Edo, behintzat, futbola berak erabakitzen zuenean uzteko aukera izatea merezi zuela. Gertatu zitzaiena oso larria izan zen eta bera kontziente zen horretaz. Bazekien horrelako beste eraso bat jasan ezin izango zuela, eta zenbait idiotaren kontua bakarrik ez zela. Arazoa guztiona, sistemikoa zen, eta berak ez zuen uste munduaren aurka borrokatzeko gai zela.

AMAIERA

Laiatzek amore eman zuela uste baduzu, milaka neskaren istorioa irakurri duzu. Zuk edo ezagutzen dituzun emakume guztiek egunero borrokatzen dute nahi dutena lortzeko, eta beren ametsak lortzeko aukera bat izan behar dute. Emaiozu Laiatzi ere aukera hori. Emaiozu bere ametsa betetzeko beste aukera bat eta...

... Joan 54. orrialdera.

Ezin zuen ulertu dantza gozaten zuen jendea. Juneren mugimenduei begira aho zabalik gelditzen zen. Paper bat haizetan mugitzen den moduan mugitzen zen bere laguna: suabe, isilean, inori bere lekua kendu gabe, gorputza eta espazioa kontrolatuz. Berak zerbait egin behar zuen bakoitzean, lorontzietako loreak ere dardarka jartzen ziren: ez zuen nahi adina leku izaten luzatzeko, edo erori egiten zen, edo ez zen besteekin batera iristen, edo espero ez zuen beste edozein gauza gertatzen zen: prakak ere apurtu zitzaizkion behin.

—Futboleak sekula gertatu ez zaidana —esan zien lagunei—. Zenbat aldiz ibili naiz lurlean arrastaka eta ez ditut prakak sekula aluaren azpiko joskuratik zabaldu.

Lagunek nahikoa lan zeukaten barreari eusten, eta horretaz kontziente zen bera. Bazekien dantzan ondo egiten ez zuela, eta ez zuen ondo pasatzen. Tentsioan pasatzen zuen dantzako klase osoa. Eskuak azterketetan bezain hotzak izaten zituen.

Saiatu egiten zen, ordea: eskolan entzundako abestiak telefonoan jartzen zituen eta etxean dantzan egiten zuen.

—Zertan ari zara? —galdetzen zion Asierrek.

—Dantzan! —erantzuten zion Laiatzek.

Asierrek barre egiten zuen:

—Dantza al da hori?

Azkenean, denbora galtzen ari zela ulertu zuen. Futbola zen gustukoa zuena eta poza ematen ziona. Beraz, nahiz eta lagunei edo familiari huts egin arren, futbolera itzultzea erabaki zuen.

Leioan izandako lehen entrenamenduaren bezperan ez zuen ondo lo egin. Goizean klasera joan zen, eta jolas-orduan kuadrillakoeekin bidaiaz aritu zen. Batzuek animatu egin zuten eta besteek sekulako marroian sartzen ari zela esan zioten behin eta berriz. Etxera iritsi zenean, betiko moduan, bere neba ez zegoen han. Sukaldean gurasoen oharra aurkitu zuen:

Laiatz, gaur ezin dizugu Leioara lagundu, baina joan lasai. Gauean zain izango gaituzu zure lehenengo eguna nolako izan den entzuteko. Bazkaria hozkailuan daukazue, berotu eta kito.

Justu Leioara gurasoeekin benetan joan nahi zuen eguna. Gero, batek daki, baina lehenengo egunean pozik hartuko zuen haien babesa. Logikoa iruditzen zaitzaion etxekoek bere gogo babestea. Alferrik: bakarrik joango zen autobusean, Metroan eta hiri barruko autobusean. Nebak etxera iritsi zen minutu batzuk igaro ondoren eta elkarrekin pres-tatu zuten mahaia ezer esan gabe. Asierrek deskonektatu egiten zuen Laiatzek futbolaz zer bait esaten zion aldiro: ez zitzaion interesatzen hamaika lagunek baloi baten atzetik egiten zuten joko hori. Irakurri, telesailak ikusi edo zuhaitzen hostoak behatu nahiago zuen. Soka saltoa ere nahiago zuen futbola baino. Gazteagoa zenean, elkarrekin jolasten ziren eskolako jolastokian, baina Asierrek utzi zion baloiari ostikoak emateari bere antzerako zaletasunak zituzten lagunak ezagutu bezain laster.

Mahaian aurrez aurre eseri ziren: batak ez luke futbolea aritzeko arazorik izango eta ez zuen aritu nahi; besteak

oztopoak baino ez zituen, baina jokatu egin nahi zuen. Laiatzek partida interesgarri bat bazuen, neba joan egiten zen ikustera, baina hori zen futbolarekin zeukan harreman bakarra: bere arreba.

—Eta? —esan zion.

—Zer? —erantzun zion Laiatzek.

—Gaur ez zoaz, bada, Leioara?

—Bai.

—Eta? Urduri zaude?

—Egia esan, bai. Lehen aldiz joango naiz, dena izango da berria niretzat eta ondo legoke lehen aldiaren norbaiten laguntza izatea. Bakarrik joateak lotsa ematen dit, ez dut inor ezagutzen.

—Pentsatu talde berriaren abantailetan.

—Zeintzuk dira, bada, abantailak, zure ustez?

—Joe, ba, beste guztiekin batera egongo zara aldagelan partida aurreko momentu magiko horretan edo entrenamenduaren ondoren, eta lasai hitz egin ahal izango duzu zure gauzez.

—Nire gauzez?

—Batuetan dena esan behar zaizu, Laiatz! Zeintzuk izango dira zure gauzak? Bada, hilekoa daukazunean, lasaiago egongo zara neskez osatutako talde batean. Ez

duzu azalpenik eman behar, ulertu egingo zaituzte eta askoz hobeto eramango duzu dena. Begira niri: nire gustuak zituen jendea aurkitu nuenean, bizitza aldatu zitzaidan. Suposatzen da zure taldean denok neskak zaretela eta futbola denoi gustatzen zaizuela, ezta? Hau izan daiteke zure salbazioa.

Laiatz isilik gelditu zen. Bere nebak arrazoia zuen. Alde batetik, akabo non eta zenbat min zuen azaltzea, tanpoia edo kopa aldatzeko gelditu behar zuenean muturra okertuta ikustea edo gorputza onenean ez zeukalako justifikatzea. Beste batetik, Leioan aurkituko zituen jokalariek futbola gogoko izango zuten eta neskak izango ziren. Nola heldu ote zen bere neba ondorio hartara? Kontua da iritsi zela, eta Laiatzi eguna salbatu ziola.

Joan 38. orrialdera.

Arnasa sakon hartu zuen. Benetako aukera lasaitzea zen, eta agian hitzaldi bat antolatzea, kartelen batzuk jartzea izenik aipatu gabe... pedagogia zen aukera erreal bakarra. Horrek ere nekatu egiten zuen. Eta ulertu nahi ez zuenak, pentsatu zuen Laiatzek, ez zuen inoiz ezer ulertuko. Eskolara itzuli zenean, begi guztiak harengan igarri zituen, baina ezer gertatu ez balitz bezala eseri egin zen bere aulkian.

—Gero lagunduko dizugu kartelak eta egiten —esan zioten neska batzuek.

Bazen zerbait. Mundua aldatzeko urrats bat zen. Bere buruari galdetu zion ea beste gauza txiki batzuk aldatu behar zituen. Arnasa kentzen zioten horiek. Jantziak, adibidez. Bere armairua txandalez beteta zegoen. Egun osoa bueltaka ematen zuen, eta nahikoa lan zuen asteari eusten, egunero modelo bi prestatzen hasteko. Entrenamendurako arroparekin joaten zen eskolara gehienetan, baina bere lagunak pinpirintzen hasita zeuden eta joaten ziren lekuaren arabera, deigarria zen bera. Makillajea, takoiak, minigonak, top laburrak... moda iragarkia zirudien bere kuadrillak. Ez zuen horrelakoa izateko gogorik. Bera baino politago ibiliko ziren, baina deserosoago ere bai. Bilboko denda merkeetako karteletan zegoen guztia zeukaten lagunek etxean. Laiatzek, ostera, armario erdia hutsik zeukan.

Bere amama zen ustezko feminitatearen ligako presidentea. Izan zitekeen gurasoak esatera ausartzen ez ziren guztia esaten zuela edo, besterik gabe, amama halakoa

zela, baina denetarik esaten zion: mutila zirudiela, horrela jantzita inork begiratuko ez ziola, futbola ondo zegoela gaztea zen bitartean, baina emakumeen gauzak egin beharko zituela halako batean... eta galdetzen zion ea ez zeukan gizonen batekin harremanetan hasteko esperantzarik, ea ez zuen gizonen gustukoa izan nahi...

Egoera gogaikarria zen. Kuadrillakoek esaten zioten bere eskuetan zegoela halakorik ez entzutea. Hara! Gurasoek futbola uzteko esaten ziotenean bezala sentitzen zen halakoetan. Bere ustez, berak ez zeukan arazorik; inork eskatu gabe iritzia ematen zutenek zeukaten arazoa. Eta bere amama zen horietako bat. Kuadrillakoak ere ez ziren atzean gelditzen. Klasera normal joateko esaten zioten eta entrenamendurako txandala janzteko. Eta berak galdetzen zien ea zer zen normal joatea, eta erantzuten zioten haiek joaten diren bezala joatea zela normal joatea. Eta osaba batek beti esaten zion mutil lagunik aurkituko ez zuela. Eta irakasle guztiek ez zioten onartzen azterketak egunez aldatzea, eta bere neba zen kontra egiten ez zion bakarria, baina askotan alde ere ez zion egiten. Eta klaseko mutilekin ondo moldatzen zen futbolaz hitz egiten zutenean edo jokatzeko baloi bat hartzen zutenean, baina gero ez zuen haiekin ia ezertan bat egiten. Eta medikuntza ikasi nahi zuen, baina agian ez zen futbolekin jarraitzearekin bateragarria.

Ito egiten zen.

Leioan gauza horietaz hitz egin zezakeen gutxienez, eta ez zen presio hori sentitzen zuen bakarria. Bakoitzak zeukan bere motxila han ere, eta bakoitzak ahal zuen bezala

kudeatzen zuen egoera. Benetako buruko mina ikaske-tek ematen zioten. Pozik ikasiko zukeen medikuntza, baina dedikazio handia eskatzen zuen. Ez zekien futbolarekin batera karrera egiteko gai izango ote zen, eta loa kentzen zion horrek. Gustura ari zen futbolean, inoiz ez bezala. Ondoen jokatzeko ari zen eta pena handia eman-go ziokeen uzteak. Baina medikua izan nahi zuela uste zuen.

Amorrua ematen zion bere burua zalantzan jartzeak, baina onarpena behar zuela sentitzen zuen. Egiten zuena egiten zuela, erabakia hartzeko besteek baino buruko min gehiago hartu behar zituela iruditzen zitzaion. Bere buruarekin haserretu egiten zen batzuetan, baina behar zuen: behar zuen besteen onarpena: entrenatzailearena, gurasoena... inguruan zituen autoritateak bere alde ego-tea behar izaten zuen gauzak egiteko. Baita horietako gehienak gizonak izaten zirenean ere. Berdin zitzaion bere egoera emakumeek hobeto ulertuko bazuten, berak behar zuen onarpena, bakarrik ez zegoela sentitu behar zuen.

Zertarako behar zuen entrenatzailearen onespina, ordea? Hark baietz zein ezetz esaten bazion, berak sufrimendu eta min berberak izango zituen bere erabakian. Medikuntza ikasiko bazuen, esate baterako, entrenatzailea ez zen joango bere partez azterketak egitera. Berak egin beharko zuen egin beharreko guztia. Orduan, entrena-tzaileak futbolean jarraitzeko esatea oso erraza zen ha-rentzat. Bestalde, zintzoa zen entrenatzailea: egia esaten zion beti.

Beldurrik handiena ematen ziona zen entrenatzaileak, bere zintzotasunean, futbola uzteko esatea zen. Horrek esan nahiko zukeen futbolari ona ez zela edo, entrenatzailearen ustez, haren kirolerako zikloa amaitu zela.

Beldurrak eta zalantza. Horixe zen buruan zeukana. Zalantzak etengabe luzatzeak osasuna galtzeko baino ez du balio. Bizitzan, batez ere erabakiak hartu behar ditugunean, ziurtasunak behar dira. Hori pentsatzen zuen Laiatzek: nahiz eta gero damutu, bidea hasten zuenean ziur egon nahi zuen. Osterantzean, ez zuen erabaki bat hartuko edo hartutako erabakia gauzatzeko indarririk izango.

Laiatzek medikuntza ikastearren dena utzi zuela uste baduzu, joan 81. orrialdera.

Entrenatzaileari aholkua eskatu ziola uste baduzu, joan 84. orrialdera.

Medikua zen: pediatra. Gurutzetan hasi zen erresidentzia egiten eta pozik zegoen. Kostata heldu zen haraino: asko ikasi behar izan zuen eta gauza asko utzi zituen bidean; tartean, baloia. Urte pare batean futbolari eutsi egin zion, baina laster konturatu zen eguna laburregia zela egin behar zuen guztirako. Aukeratu egin behar izan zuen eta ikasketei eustea erabaki zuen. Energia guztia medikuntzan jarri zuen.

—Futbolean jarri duzun indarra medikuntzan jartzen bazu, zorte handia izango dute zure pazienteek —esaten zioten.

Erabaki zuzena hartu zuela uste zuen. Ez zuen kirolek bizibiderik aterako, eta horri garrantzia eman behar zion. Inoiz galdetzen zion bere buruari nora eramango ote zuen futbolak jarraitu izan balu, baina ezkorra zen. Oraindik ere borroka handietan sartuta ikusten zituen neskak. Bizitzak, tarteka, erantzun praktikoak eskatzen zituen, eta berak bazuen bere aukera justifikatzen zuen argudioa: «sendagilea naizenean, gutxienez, ondo bizi izango naiz». Horrek balio zion, edo hori uste izan zuen lau urte luzez.

Ospitalekoak amaitu eta gero, lagunekin egoten zen. Inoiz baino gehiago elkartzen zen kuadrillarekin, nahiz eta inoiz baino argiago izan lagun batzuek ezer ematen ez ziotela. Bidaiatu ere egiten zuen, pianoko klaseetara joaten zen... nahi zuen gauzetarako dirua ere bazuen eta beste guztien pareko sentitzen zen. Pozik zegoen eraikitzen ari zen bizitzarekin.

Bere nebak futbolaz hitz egiten zion orain, lehen ez bezala. Zirikatzearren egiten zuen. Halakoetan ez zion kontra egiten; liga jarraitzen zuen, eta oraindik jokaldi asko ikusten zituen behin eta berriz. Asierrek Laiatzen damua espero zuen, baina Laiatz lasai ederrean zegoen. Baloia gorde izanaz ez zen damutzen, eta asteburuetan Athletic ikustera joaten zen. Tarteka, Leioatik pasatzen zen egunen batean. Han jarraitzen zuen berarekin jokatu zuen pare batek. Ezin zuten futbola utzi, eta hantxe ekiten zioten baloiari neska gazteen artean.

Larrialdietako pediatria zerbitzuan zegoen zapatu batean, neska txiki bat sartu zen gurasoen eskutik. Sei bat urte zituena eta zauri ederra belaunburuan. Negar batean zegoen. Umea lasaitzen saiatu ziren. Gurasoen eskuak askatzea lortu zuten, baina baloia besapean zuela eman behar izan zizkieten puntuak.

Ondo portatu izategatik, trapuzko Mickey Mouse bat eskaini zion erizainak, baina ez zuen nahi izan. Ama edo aitaren eskutik heldu nahi zuen, eta baloia soltatzea ez zen umearen planetan sartzen. Athleticeko elastikoa zerman, sei zenbakia eta bere izena: Lea.

Atetik irteten ikusi zuenean, ozen irakurri zuen umearen izena:

—Lea.

Negar-malkoak zerizkion. Emozio arraro bat etorri zitzaion urdailean gora: nostalgia edo damua. Txikitako Laiatz

ikusi zuen bere aurrean: baloia besapean hartuta, parke batetik bestera. Pentsatu zuen Learentzat dena askoz errazagoa izango zela, baina ez zeukan argi zuzen zegoen.

—Lehenengo eta behin, lasaitu egin behar duzu. —Hara entrenatzailearen aholkua. Arrazoia zuen. Garrantzitsue-
na, momentu hartan, paperak ez galtzea zen: bere buruari
eustea. Horrela baino ez zuen lortuko ganorazko erabaki
bat hartzea—. Zaintza edo sendatzea bada helburua, eri-
zaintzak ere balio dizu...

Berriz ere arrazoia zuen. Zertarako emango zuen bizitza
osoa aukeratzen? Erizaintza ikasiko zuen, eta futbolari
eutsi egingo zion. Medikuntza ikasteak asko eskatuko
zion, ordu eta sakrifizio asko, hor zegoen arazoa. Bere
burua konbentzitu egin zuen. Erizaintza ere ondo zegoen
eta laburragoa zen, futbolarekin konbinatzeko errazagoa.

Kontua zen orduan beste erabaki bat hartu behar zuela:
non ikasi. Manchesterren erizaintza ikasi zezakeen (han-
go unibertsitatea onenatarikoa zen), baina zer gertatuko
zen orduan futbolarekin? Aurkituko zuen han talde bat?

Manchesterrera joan zela uste baduzu,
joan 85. orrialdera.

Euskal Herrian geratu zela uste baduzu,
joan 47. orrialdera.

Betetzearren bete zuen eskari orria, baina onartu egin zuten. Manchesterrera joango zen erizaintza ikastera.

Aukera ederra zeukan begi bistan. Arazo bakarra zen ez zekiela futbolarekin zer gertatuko zen. Pentsatu zuen Manchesterren talde bat aurkitu ahal zuela, baina talde loriatsu baten sartzen ez bazen, Euskal Herrira itzultzean San Mamesen jokatzeko aukerak murriztu egingo zitzaizkion.

Dena den, orduan ere ez zeukan San Mamesen jokatzeko modurik, beraz...

Manchesterren futboleant jarraitu zuela uste baduzu,
joan 87. orrialdera.

Manchesterren futboleant jarraitu ez zuela uste baduzu,
joan 86. orrialdera.

Eskerrak ez zuen medikuntza hasi! Nahikoa lan izaten zuen erizaintzako ikasketekin. Azterketak iristen ziren aldiro ito egiten zen, eta praktikan konturatu zen ordutegiak ezingo zituela inoiz edo ia inoiz bateratu. Azkenean, futbola utzi egin zuen. Lantzean behin deitu egiten zioten jokatzeko, baina lagun arteko partidetan edo baja asko egoten zirenetan bakarrik ateratzen zen zelaira. Entrenatzera joaten zen, baina goizez, arratsaldez edo gauzez lan egin behar zuenez gero, jokatzera ez zen erraza.

Asko gustatzen zitzaion bere lana. Ospitaleko pazienteek ez zuten beste erizainik nahi. Jendea ondo zaintzen zuen. Mimo handiz egiten zuen lana eta horrek lagundu zion futbola ahazten.

Ez zen erraza izan. Entrenamenduetara joan ez zen lehen astean ez zuen lorik egiten. Asteak aurrera joan ahala, lasaitu egin zen, eta gero eta gusturago joaten zen ospitalera. Norbaiti alta ematen zioten aldiro pentsatzen zuen erabaki zuzena hartu zuela futbola utzi zuenean.

Dena den, lagun arteko partidaren bat suertatzen zen bakoitzean, urduri jartzen zen. Zapatilak lotzen zituen bakoitzean, korapiloa tripan sentitzen zuen, eta dutxan sartzen zenean lasaitasun berezi bat sentitzen zuen. Eta, noizean behin, bakarrik zegoenean, zalantzan jartzen zuen egiten ari zena ote zen benetan egin nahi zuena. Eta bere buruari esaten zion baietz, bere bizitza gustatzen zitzaiola eta pozik zegoela. Hori zen garrantzitsua.

AMAIERA

Lau neska joan ziren Manchesterrera. Guztia berria zuten han: unibertsitatea, hizkuntza, ohiturak, besteekin erlazionatzeko era... Lehenengo hiru asteetan, dena mirregarria zen haientzat. Gerora, ohitzen ziren. Eta ohitu ahala, lau neskek aurkitu zituzten euren gustuko gauzak. Laiatzek, noski, futbol-talde bat aurkitu zuen. Unibertsitatean nesken taldea zegoen, eta unibertsitateen arteko ligan jokatzeko zuten. Laister sartu zen entrenamenduetako dinamikan. Pozik zegoen: entrenatzaile ona eta jatorra zuen, eta taldeko neskek ezagutu eta berehala ongi konpondu ziren elkarrekin. Erronka polita zen beretzat ikasketei eusteaz gain, futbol taldean integratzea.

Konturatu baino lehen, hiru urte egin zituen Manchesterren eta bitan irabazi zuen unibertsitateetako liga. Guztiek miresten zituzten bere futbolerako gogoia, indarra eta batez ere, pasioa. Hain pasio handia zuen, ezen taldea hain ondo ibiltzearen ardura Laiatzi egokitu zitzaion. Futbola bizitzeko eta jokatzeko beste modu bat bizi zuen eta ez zen une batez ere damutu hara joateaz. Eta horrela, bost urte zoragarri pasatu zituen Manchesterren.

Euskal Herrira itzultzeko ordua heldu zitzaionean, lo egiteari utzi zion berriro. Ez zekien zer aurkituko zuen etxean.

—Zuk etxera etorri nahi duzu, baina beldurtuta zaude
—esan zion Asierrek.

—Beldurra zergatik izango dut, bada?

—Manchesterren rock izar baten moduan zaintzen zaituztelako, eta Euskal Herrian gauzak desberdinak izango direlako.

Arrazoia zuen: beldurra ematen zion Euskal Herrira itzulitzeak ate guztiak itxita aurkituko zituela uste zuelako.

—Deitu betiko entrenatzaileari —esan zion nebak—, ez duzu ezer galtzeko.

Ez zion inori deitu nahi. Euskal Herrira itzuli eta futbolearen jarraitzea zen bere ametsa. Ez zuen argi hori posiblea zen. Azkenean, nebari kasu egin eta entrenatzaileari deitu zion.

—Hau bai berri ona! —esan zion—. Uste dut orain gauzak dauden moduan, Athleticek fitxatu nahi izango zaituela. Zu noiz itzuliko zain egon gara!

Ezin zuen sinetsi. Leku bat izango zuen Athleticen, eta laster deitu zioten. Hura bai poza! Poz handia!

Joan 89. orrialdera.

Athleticetik deitu zioten. Haiekin hitz egiten zuen bitartean lasai egotea lortu zuen arren, eskegi zuenean negar batean zegoen. WhatsAppa sutan jarri zuen: mundu guztiari kontatu zion, pozaren pozez. Lariatzen ametsa, pertseberantzia, gogoa, lana, izerdia... bere ahaleginetatik onura ateratzen hasi zen. Kuadrillakoak, gurasoak, amama... guztiak poztu ziren, Leioako taldekideek txalo egin zioten entrenamenduan... garai batean taldekide izan zituena mutilak ere poztu egin ziren.

Bere nebak, beti bezala, espero ez zuen leku batean erbia harrotu zuen:

—Athleticetik deitu didate haien taldeko kide izateko aukera eskainiz.

—Eta? —esan zion nebak.

—Nola, eta? Athletic da! Uste duzu zalantzak izateko aukerarik badagoela?

—Beno, orain gustura zaude, eta zuk ez duzu futboleko fama izateko jokatzeko. Zure gogoa jokatzeko izan da beti.

—Bai, nire gogoa beti izan da jokatzeko, baina lehen mailan jokatzeko aukera daukat, eta amets hori hor izan dut beti, nahiz eta zaila izango zela jakin. San Mamesen jokatzerira irits ninteke. Zuk badakizu zer den hori niretzat?

—Bai, baina hori hartza hil aurretik haren larrua saltzea da.

—Hara, filosofo jauna!

—Orain titularra zara, baina zuk ez dakizu zein postu emango dizuten. Litekeena da San Mamesen jokatu behar duzuen egun horretan zu ez deitzea.

—Benetan ari zara?

—Jakina.

—Zu izan zara guzti honetan lagundu didan bakarra. Futbola potroetatik pasatzen duzun arren, hor egon zara beti. Zuri esker lortu nuen gurasoek entrenamenduetara eramatea, zuri esker lortu nuen Leioara lasai joatea. Nire buruarengan sinisten lagundu didazu eta orain, ametsa eskuekin ukitu dudanean, hau esaten didazu?

—Ez dut sufritu dezazun nahi.

—Sufritu? Zuk uste duzu orain arte sufritu ez dudala?

—Titularra ez bazara, frustratu egingo zara.

—Zuk uste duzu nik ez ditudala gorputza, arima, lurra, ura, sua eta haizea zelaian jarriko? Zuk benetan uste duzu ez naizela titularra izango?

—Badakit ondo jokatzen duzula, baina Athleticera onenak joaten dira bakarrik.

—Ni ez naiz onena?

—Zure mailan, bai.

—Zoaz haizea hartzera!

—Barkatu! Benetan, onean ari naiz. Ez dut sufritu dezazun nahi.

—Bada, orduan nigatik poztu egin beharko zenuke.

Gurasoekin hitz egin zuen gero. Esan zioten, futbolaz aparte, beste gauza batzuk egin beharko zituela bizi ahal izateko. Eta arrazoi zuten. Eta nebak ere bai: zegoen lekuan bazuen toki bat. Talde berrian, auskalo: berriz ere zerotik hasi behar zuen borrokan. Jokatzea zen bere asmoa, nahiz eta lehen mailan ez izan. Zer egin behar zuen?

Laiatz taldean geratu zela uste baduzu,
joan 95. orrialdera.

Laiatz Athleticera joan zela uste baduzu,
joan 102. orrialdera.

Etxean jokatzeko zuten egun batean gertatu zen. Aurkaria ligako gogorrena ez bazen ere, urduri zegoen partida hasi aurretik. Beti gertatzen zitzaion gauza bera. Zelai erdira joan zen eta beste taldeko kapitainarekin aurrez-aurre jarri zen. Txanpona airera bota eta besteei ateratzea egokitu zitzaion. Bere lekura joan zen: aurrera. Epaileak txilibitua jo eta berehala «puta» entzun zuen. Bere irudipena izango zela pentsatu zuen. Biraoak entzutea normala zen partidetan. Jendeak oihu egiten zuen etengabe. Horretara ohituta zeuden: gizonetzkoen lehen mailako futboleant ez zen iraindu besterik egiten, oso arrunta zen epailearen edo kontrako taldearen aurka denetarik esatea. Eta hori pentsatzen zegoela, «tortillera» entzun zuen. Ezin zion bere irudimenari edo txarto entzuteari egotzi.

Futbol-zelaiaren alde batean harresi bat zegoen eta hara igota zeuden hainbat mutil. Dozena bat edo ziren, pipitak jaten. «Hobeto zaudete etxean!», oihukatu zuen haietako batek. Nazkatuta begiratu zituen, baina ez ziren isildu. «Noiz ikusi da emakume bat futboleant? Zoazte sukaldera zuen mutil-lagunei bazkaria prestatzera!», esaten zuen batek eta barre egiten zuten guztiek. «Zakila ondo miazkatzeko duzula egingo nuke», «Aldageletan zenbat atzamar sartzen dizkizute?»... Nola zen posible? Batek ere ezin zuen esan «nahikoa dugu, pasatzen ari gara»? Norbaitek hala pentsatzen bazuen ere, inork ez zuen ezer esan.

Laiatzek baloia hartu eta amorru bizian eraman zuen aurrera. Gola sartu zuen. Taldekideak besarkatzera hurbildu zirenean, mutil taldeko bozeramaileak esan zuen:

«Hori, hori, ukitu ipurdia elkarri eta igurtzi aluak bata bestearen bizkarrean! Horixe gustatzen zaizue, aluak jatea!». Taldekide guztiak harritu ziren.

—Zer da hau? —galdetu zuen batek.

—Segi jokatzek! —agindu zuen Laiatzek—. Kasu egitea da nahi dutena. Gu geurera!

Bada bai. Antza denez, kasu egitea nahi zuten eta lortzen ez zutenez gero, egoera okerragotu zen. «Putza zaharrak, bortxatu egingo zaituztegu»... eta halakoak esaten hasi ziren. Izugarria zen bortxaketaren apologia hura. Jakingo zuten mutil haiek bazirela bortxatuak izatearen beldur? Jakingo zuten umetatik esaten zietela kontuz itzultzeko? Jakingo zuten munduan minutuero milaka emakume bortxatuak zirela?

Laiatzek erdiko atzamarra erakutsi zien mutilei, eta lehen erdia amaitu zen. Aldageletara joan zirenean, sutan zegoen.

—Ondo zaude, Laiatz? —galdetu zion entrenatzaileak.

—Ez. Nola egongo naiz, bada, ondo? Barruak bueltaka ditut. Bortxatu egingo gaituztela esaten ari dira.

—Mesedez, ez galdu kontzentrazioa. Partida amaitu eta gero egingo dugu zerbait!

—Ei, ez dakizu nola ari diren! —esan zuen atezainak.

—Badakit! Orain beste taldeko atezaina irainduko dute seguruenik, parean izango dutelako. Ea zer egin dezakedan zelaitik bidal ditzaten. Zuek zeuenera. Zaila bada ere, zentratu zaitezte partidari, mesedez! Irabazteko aukera handia daukagu —esan zien entrenatzaileak.

—Eta bidaltzea okerragoa bada? —kezkatu zen Laiatz—. Bortxatu egingo nautela esaten ari dira, zakila miazkatzeko, puta, gure amarekin egiten dutela larrutan... Zelaitik botatzen badituzte, umiliatuta sentituko dira.

—Zerbait egitera derrigortuta nago —esan zien entrenatzaileak—. Ezin diet ume moko horiei partida izorratzen utzi! Ni arduratuko naiz mutil horietaz eta zuek arduratu partidaz.

Bigarren erdian mutilek han jarritzen zuten. Pipitak ere ez zitzaizkien inoiz amaitzen, antza! Zer zen hura! Saguak ziruditen pipitak jaten zituztenean, eta arratoiak berbetan hasten zirenean. «Zurea bai ipurdia, eta ez Leioako atezainarena!», esan zioten aurkako atezainari. Hortik gora, edozer entzun behar izan zuen hark ere: zein posturatan larrua jotzea gustatzen zitzaion, atzea irekiko ziotela, bortxatu ere egingo zutela... Laiatzek ezin zuen sinetsi. Ez zituzten hamabost urte baino gehiago izango. Harrigarria zen XXI. mendean halako gauzek barregrura ematea.

Halako batean, bidali egin zituzten handik. Partida bakean amaitu zuten, baina bakeak ez zuen asko iraun.

Joan 52. orrialdera.

—Zer egiten duzu hemen? —galdetu zion entrenatzaileak.

—Zer ba? —erantzun zion Laiatzek—. Gaur entrenamendua dago, ala ez?

—Zu ez zara gure taldekoa.

—Noiz bidali nauzue, bada?

—Atzo mezu bat bidali zenigun Athleticetik deitu zizutela esanez.

—Hobeto pentsatu dut: ondo nago hemen.

—Zer? Barkatu... azalduko didazu zer dagoen buru nahastu horretan?

—Hemen titularra naiz eta Athleticen, batek daki. Gainera, ez naiz futbol hutsetik inoiz bizi izango, orduan, zertarako amets egin lehen mailarekin? Berdin ibili behar badut, lan egiteko edo ikasteko atzera eta aurrera, hobeto nago hemen.

—Eta non dago Laiatz hura, hamabost urterekin Gernikatik bakarrik etortzen zena? Konformatu egingo da bizitzak eman dionarekin?

—Konformatzea baino gehiago da hemen irautea.

—Laiatz, toparen topean jokatzeko, ametsak betetzeko aukera daukazu. Zertarako egin duzu lan urte hauetan? Zertarako egin zenuen ahalegin deskomunal hura lesionatu

eta gero? Zertarako egin duzu indarkeria matxistaren kontra? Zertan ibili zara urte guzti hauetan?

—Ez dakit... indarkeria guztion kontrakoa da...

—Hara! Arima jarri duzu jokoan. Ez dut inoiz inor ikusi zuk jokoan jartzen duzun guztia jartzen. Mutilak, neskak, zaharragoak, gazteagoak, hobeak, eskasagoak... entrenatu ditut eta inork ez dit zelaian zuk jarri duzuna jarri. Inork ez. Eta beti pentsatu dut momentu hau iritsiko zitzaizula. Iritsi egin behar zitzaizun. Ez dakizu zenbat entrenatzailek ordainduko luketen zure moduko jendea entrenatzearen...

Laiatzek negarrari eman zion. Egia zen gogor lan egin zuela, baina inork ez zion inoiz halakorik esan. Egiten zuen guztia normala balitz bezala hartzen zuen jendeak. Inork ez zion sekula esan igarri egiten zela arima zelaian jartzen zuela, ezta ametsa betetzea lortuko zuela ere. Inork ez zion sekula ezer positiborik esan eta gainezka egin zuen bat-batean.

Bakarrik gelditu zen aldagelan. Ez zen entrenatzera atera. Ur beroa piztu zuen eta arropa eta guzti sartu zen dutxara. Dutxa azpian busti ahala, biluztuz joan zen, erabat biluzik gelditu arte. Negar egin zuen, eta oihu. Barrutik pozoia irten balitzaio bezala. Oihu egin zuen amorrua betirako askatuko balu bezala. Eta, gero, barre egiten hasi zen.

—Ona naiz! Ona naiz! —esan zion bere buruari, ahaztearen beldur izango balitz bezala.

Lehortu, jantzi, eta entrenamendua amaitu arte itxaron zuen taldekideak agurtzeko. Besarkatu egin zituen.

—Ez ahaztu nitaz! —esan zien.

—Nola ba? —erantzuten zuten batera.

Neska horiek izugarri maite zituen. Zenbat lagundu zioten elkarr! Eta nola poztu ziren bere ametsa beteta ikustean! Haietako askok amets berdina zeukaten: San Mameseko zelaira aldagelatik sartzea.

Besarkaden eta muxuen ostean, barreak eta maitasun adierazpenak heldu ziren, eta guztiek sinatutako Leioako elastikoa oparitu zioten. Entrenatzaileak bostekoa eman zion eta bera zoriontsu sentitu zen. Benetan zoriontsu.

Amorru guztia ukabil batean bildu zuen Laiatzek eta eskaileran gora abiatu zen. Bigarren solairuan zegoen bere ikasgela, baina bidean ez zen lasaitu; aitzitik, gero eta haserreago jarri zen. Ezin zuen irakaslea jo, arazo larriak ekarriko zizkion eta. Baina mutilari belarrondoko bat emateko gogoaz bazuen. Amorru hutsa sentitzen zuen. Itsu-itsuan zebilen korridoreetatik, mutil hura eta Leioako mutilak jotzeko gogoaz gero eta handiagoa zen bitartean.

Klaseko atea zabaldu zuen eta mutila jo zuen birritan pentsatu gabe. Hasieran harrিতuta geratu zen arren, berehala erreakzionatu zuen mutilak eta borrokan hasi ziren. Laiatzek ez zuen inoiz inorekin borrokatu eta jipoi ederra hartu zuen.

Ez zen erabaki zuzena izan. Nahiz eta lehenengo kolpea eman zuenean, izugarritzko poza sentitu zuen arren, zorianak segundo gutxi iraun zizkion.

—Zuen alaba hori burugogorra da gero! —esan zien eskolako zuzendariak Laiatzen gurasoei.

Etxera heldu zirenean umea lasaitzen saiatu ziren, baina bera lehertzeko zorian zegoen.

—Zer pentsatzen dute? Zer pentsatzen duzue? Zer egin behar dugu, dena jasan?

—Ez! —esan zion amak—. Baina gauzak egiteko moduak eta momentua aukeratu, bai! —Laiatzek begiratu zion eta entzuten hasi zen. Baretzen joan zen poliki-poliki—.

Ikusten? —jarraitu zuen amak—. Ez da beharrezkoa gauzak kolpeka konpontzea. Lehenik egin behar duzuna baretzea da! Gero, pentsa ezazu gauzak aldatzeko zer egin daitekeen eta hori egin. Baina indarkeriarik gabe eta zeure burua mindu gabe.

«Neure burua mindu gabe», errepikatu zion bere buruari.

Nagitu egin zen bera ere. Gurasoen babes itsua izango balu sikiera, baina ez zeukaten hara eta hona ibiltzeko astirik. Ezta gogorik ere; hasieratik zintzoak izan balira! Lagunekin egon nahi zuen, eta astero lau aldiz entrena-tzera joaten hasten bazen, gauza asko galdu eginko zituen.

Denbora luzean egon zen lorik egin gabe, baina azkenean futbola utzi zuen.

Askotan damutu izan da hartutako erabakiaz, ordea. Atze-ra begiratzen duenean, ez du ulertzen zergatik utzi zuen futbola beste edozer utzi beharrean. Bere taldeko muti-lek euren bidea egin zuten eta lagun arteko partidetan ere ez zuten kontuan hartzen. Min ematen zion hasieran: hainbeste urte elkarrekin baloiaren atzetik eta hain erraz ahaztea ez zen normala.

Kuadrillakoek erabaki zuzena hartu zuela esan zioten or-duan. Hogei urte pasatu eta gero, ostera, barruak erratu egin zuela esaten dio. Orain argi ikusten du ez ziela ka-surik egin behar, futbola kuadrillakoengandik bereizten zuen gauza bakarra ez zen eta.

Garazirekin gelditzen da oraindik ere, eta inbidia ematen dio: bateria jotzen du herriko talde batean eta oraindik ere manga komikiak irensten ditu. Urteak dira, ordea, Laiatzek baloia ukitzen ez duela. Partidak ikustera joaten da, eta jokaldiak aztertzen jarraitzen du, baina ez daki zertarako. Pianoa jotzeko begiak ixten dituenean Laiatz indartsu hura gogoratzen du: motxila lepoan, leku guz-tietara iritsi nahian, munduan bere lekua eraiki nahian...

Entrenatzaile titulua ateratzea pentsatzen ari da, eta neskak entrenatzea gustatuko litzaioke. Badaki haiei lagundu ahal diela. Mutilekin ere hitz egingo luke: esango lieke taldean aberekeriak ez egiteko, besteei barregura eragitea edo onena izatea derrigorra ez dela, neskak baino hobekak izan behar ez dutela...

Bai, entrenatzaile titulua aterako du, orain ez dio inportata bere kuadrillakoek zer pentsatzen duten. Urte batzuetan beti elkarrekin ibiltzen ziren, baina orain oso gutxitan ikusten dute elkar: kuadrilla egunean, Gabon Afari aurreko poteoan eta norbaiten soziedadean antolatzen dituzten bazkarietan. Orain badaki gogorra dela hamaika urte izatea eta erabaki behar izatea, edo hamalau urterekin norbere lekuri ezin aurkitzea, edo hamabostekin halako erabaki potolo baten aurrean bakarrik sentitzea. Jokalari profesionala ez bada ere, kirola bere bizitzan behar du. Eta besteei laguntzeko eta aldi berean mundua hobetzeko aukera badu, askoz hobeto. Hori da egingo duena.

Zapatilak lotzeko makurtu zenean, oroitzapenez bete zitzaion burua. «Holakorik!», pentsatu zuen, «banekien odolak burura egiten zuela burua makurtzerakoan, baina oroitzapenek gauza bera egiten zutenik ez!».

Urduri bezain zoriontsu sentitzen zen, edo zoriontsu bezain urduri. Inoiz zalantzarik izan bazuen, dagoeneko desagertu ziren. Orain amesten zuen tokian zegoen. Argi ikusten zuen merezi izan zuela. Ulertu zuen momentu onek eta txarrek Laiatz futbolaria eraiki zutela. Harmailetako barbaroa entzuten zen aldageletatik. Ez zegoen ohiko aldageletan. Normalean Lezaman jokatzeko zuten, baina egun hartan ez. Eserita zegoen lekuan aldagela haietan egon zirenen izenak erreparatu zituen bere barruan: Iribar, Goiko, Andrinua, Guerrero, Aduriz... Eta Nerea Onaindia edo Ainhoa Tirapu. Bere buruarekin haserretu zen berriro: zergatik ez zuen lehenik emakumeen izenak aipatu? Zapatiletako lokarriak estu lotu eta burua jaso egin zuen esku biak belaunetan jarriz.

—Zer, Laiatz, jokatzeko gogorik ez? —esan zuen entrenatzaileak.

—Ez dakizu ondo zein gogo dudan!

—Hori uste nuen, bada!

Iribarre egin eta korridorera joan zen. Pauso irmoa zerman, baina kaka eginda zegoen. Korridorearen amaieran zer aurkituko zuen ez zekien. Bere bizitza osoa ikusten ari zen film batean bezala. Orain barregura ematen zio-

ten bera ez aukeratzearren azkenerako uzten zuten mutil haiek. Ez zekien futbolean jokatu ote zuten, baina gehienak Athleticceko bazkide izango ziren. Gogoratu zen bere herriko klubaz. Oraindik ere nesken taldea osatzeko hainbeste koplak darabilen klubaz. Eskatu zioten martxoaren zortzian talde mistoetan dauden neskei hitzaldi bat emateko, baina ordura arte ez zuten ezer egin neska horientzat gauzak errazteko. Gogoratu zen bere amamaz eta neskek egin behar ez dituzten gauzez. Kandela piztuko zion etxeko pasiloan zeukan Jesusen Bihotzari. Gogoratu zen bere nebaz eta ametsa betetzeko gutxi falta zitzaionean esan zizkionez. Titularra zen. Eta ziur zegoen bere nebak hasieratik jakingo zuen lortu egingo zuela. Gogoratu zen Leioan izan zuen entrenatzaileaz, azken minutuan zein ona zen aitortu zionaz. Gogoratu zen emakumeen futbola ez zela femeninoa eta ez zela futbola esan zion irakasleaz. Begiratu zuen ingurura, eta emakume femeninoak ikusten zituen: femeninoak eta futbolearen oso ondo jokatzen zutenak.

Korridorearen irteeran zegoen San Mames: argitsu, handi, errepikaezin, gaindiezina, maitasunez beteta. Elkarri lepotik heldu zioten taldekide guztiek. Elkar animatu zuten.

—Goazen! —esan zuen entrenatzaileak.

—Goazen! —oihu egin zuten denek.

Harmailak gainezka zeuden, jendea txalo betean. Iñigo Cabacasen herri harmaila lehertzeaz zegoen. Ikusgarri zegoen San Mames.

Ume-umetatik maitatu zuen futbola eta hori ez zen beti bide erraza izan, baina azkenik han zegoen: San Mamesen, partida hasteko prest kapitainaren besokoa jantzita.

San Mames kantuan ari zen: «Athletic gorri ta zuria denontzat zara zu geuria... Athletic, Athletic, gogoaren indarra...». Gogoaren indarra. Indarra. Gogo. Hori izan zen bere arma bakarra. Horrek mantendu zion ilusioa.

San Mamesera lehen aldiz joan zen egunaz gogoratu zen: handitasunak irentsi egin zuen. Handik goitik jokalaria txiki-txikiak ikusten zituen. Pentsatu zuen harmailetan zeuden umeengan. Ziur zegoen haietako batzuek futbolearen ere jokatu nahi zutela, eta bera eta bere taldekideak beren eredia zirela. Haiengatik ondo jokatu nahi zuen.

Arbitroak txilibitua jo eta partida hasi zen. Eta Laiatz jokatzeko hasi zen, berriro ere dena emateko prest.

AMAIERA

Amaierara heldu zara, irakurle, baina hau al da benetan amaiera? Joan 60. orrialdera, istorio honen hitzatzea ezagutzeko.

—Niri ondo iruditzen zait Laiatzek futbolean jokatzea
—esan zuen Junek.

—Nik ez dut hain argi ikusten —erantzun zuen Anderek.

—Zergatik ez?

—Hori, zergatik ez? Guri ze kalte egiten digu? Berari gustatzen zaiona da eta jokatzeko eskubidea du. Gainera, mutil asko baino hobea da.

—Eskubidea badauka, baina futbola existituko ez balitz, jolastokia guztiona izango litzateke —azaldu zuen Leak.

—Hori ez da bere errua! Irakasleek zerbait egin beharko lukete!

—Bai, baina futbolean hasten denean, aldatu egiten da: Amets eta Liher baino astopotroagoa da bera!

—Baina hori da berari gustatzen zaiona! —errepikatu zuen Junek.

—Ez dago guztioi gauza berdina gustatu beharrik —esan zuen Garazik—. Bakoitza gauza batek bizi du eta hori errespetatu egin behar da.

Lagun guztiek zekiten Laiatzek futbola maite zuela. Egunkari-zatiak gordetzeko eskatzen zien partida berberaren hainbat iritzi izateko eta meriendak egiteko elkartzan baziren eta telebistan futbola bazegoen, Laiatz galtzen zen partidari; lehen mailako gizonezkoen ligako

jokalari-zerrenda guztiak zekizkien, jokaldiak buruz ikasten zituen... Nortzuk ziren haiek horri mugak jartzeko? Gogor hartzen zuten batzuetan, baina lagunak ziren, eta gehienek horrela maite zuten.

Joan 9. orrialdera.

—Gurekin jolasten ez badu, hobeto! —esaten zuen Lihherrek.

—Ona da! —erantzun zion Martinek.

—Horregatik! Badakielako bera baino hobea dela —esan zuen Aritzek, barrezka.

Mutilei kosta egiten zitzaien Laiatz jokalaria ona zela onartzea. Batzuek baino ez zuten aitortzen eta helduek, gainera, adarra jotzen zieten eskolan:

—Neska batek irabazi dizue gaur ere?

—Hau taldea! Neskak ere tartean onartzen dituzue eta gainera irabazi egiten dizuete!

Inork ez zuen nagusien begietara pringatua izan nahi eta frustrazioa eta amorrua Laiatzen kontra bideratzen zituzten. Gehienetan, bera aurrean ez zegoenean, jarrera koldarra bazen ere. Baina Laiatz geratu zen taldean. Aztertzeakoak ziren, hala ere, helduek txikienak izorratzeko erabiltzen zituzten komentarioak. Ez ziren konturatzen norbaiten ametsa izorratzen zutenik.

—Laster neskengana itzuliko da —esan zuen Lihherrek.

—Nola dakizu hori? —galdetu zion Ametsek.

—Azkenean beti amaitzen dute neskek neskekin eta mutilek mutilekin.

—Zeuk esaten duzulako! —erantzun zioten besteek.

Hala ere, ez zegoen guztiz oker. Oro har, neskek neskekin eta mutilek mutilekin amaitzen zuten. Presioa gogorra da guztientzat, eta egunero munduaren kontrako borroka betean aritu beharrak nekatu egiten du.

—Nik ez dut uste horrela izan behar duenik! —esan zuen Aritzek.

—Azkenean, alde batean edo bestean gelditzen dira —erantzun zion Martinek.

—Ez beti! —Aritzek, berriro—. Ez beti. Batzuetan, erdian gelditzen dira eta hori egiteko ere eskubidea dute. Zergatik izan behar duzu bat edo beste?

—Ados, baina hori beste kontu bat da. Kontua da, orain, Laiatzi futbola gustatzen zaiola eta hori inolako problemarik ez dela —esan zuen Ametsek.

Arrazoia zuen. Laiatzi futbola gustatzen zitzaion, eta usaindu ere ez zituen egiten horrek bere inguruan sortuko zituen gatazkak. Neskek gogor hartzen zuten arren, ulertu egiten zuten bere pasioa. Mutilek, ordea, txaloak jotzen, txisteak egiten zituzten... amorrua ematen zien Laiatz haiek baino hobea izateak. Aritz zen horrek kezkatzen ez zuen bakarra:

—Nik, askotan, Laiatz dagoelako jolasten dut! —esan ohi zuen.

Joan 9. orrialdera.

—Niri futbola gustatzen zait, baina ez hainbeste —esan zion batek.

Laiatzek bazekien zertaz ari zen. Futbola gustuko zuen, baina agian ez korrontearen kontra joateko edo kuadrillarik gabe gelditzeko edo ikasketen presioari eusteko hainbeste.

—Azken batean, lehenago ez bada, geroago zuk ere utziko duzu —esan zion bigarrenak.

—Zergatik? —asaldatu zen Laiatz—. Zuk zer dakizu?

—Laiatz... ametsak amets dira, baina egunen batean unibertsitatera joan eta lan egiten hasi beharko dugu... Ez dakit, bizitza antolatu eta futbolak gero eta ordu gehiago eskatzen dizkigu bueltan ezer ez emateko.

—Ezer ez emateko? —galdetu zuen Laiatzek, apur bat asaldatuta.

—Bada ez, ezer ez.

Ezin zuen galdera hori burutik kendu: benetan ez ote zion futbolak ezer ematen? Ez zen bere kasua, pentsatu zuen, nahiz eta futbolak zer ematen zion ez zekien. Agian, arrazoia zeukaten eta bera zen egoera ikusi nahi ez zuen bakararra.

—Nik ez dut taldea utziko —errepikatu zien handik egun batzuetara.

—Guk denboraldia amaitzen badugu, pozik.

Erabakia hartuta zeukaten. Kito.

—Eskatu diezazueket mesede bat?

—Egiteko modukoa bada...

—Zein mesede?

—Bada, ez utzi taldea ofizialki —eskatu zien—. Nahiz eta entrenatzera edo partidetara gutxitan etorri, ez kendu izena taldetik. Talde mistoa kentzen badute, ni ere jokatzeko aukerarik gabe geldituko naiz.

Isilik gelditu ziren taldekideak.

—Asko eskatzen ari zara —esan zuen batek—. Taldea ofizialki uzten ez badugu, tarteka etorri egin beharko dugu, eta zein motibazio izango dugu horretarako?

—Nik egingo dizut mesede hori —esan zuen beste batek—. Entrenatzera noizean behin etorriko naiz, partidetan oso gutxitan irteteko. Horrela beste denboraldi bat pasa badezaket, aurrera. Nahiz eta ez jokatu partida guztietara joan behar dudala esaten badidate, berriro pentsatuko dut.

Laiatz lasaitu egin zen. Momentuz taldea zuen, baina aukerak murrizten ari zitzaizkion. Noiz arte iraungo zuen klubak gezur hartan? Ez zen gezurra (berak jokatzeko bazuen, mistoa zen taldea), baina egia ere ez, eta norbaitek noizbait talde mistoa ezabatuko zuen.

Zer egin behar zuen orduan, dantzan izena eman eta futbola betirako ahaztu?

Laiatzek dantzan izena eman zuela uste baduzu,
joan 23. orrialdera.

Laiatzek dantzan izena eman ez zuela uste baduzu,
joan 30. orrialdera.

Gurasoei galdetzea erabaki zuen. Uztaila aurrera zihoala eta abuztuan entrenamenduak hasi egingo zirela ikusita, bihotz hatu eta galdetu zien:

—Eta? Pentsatu duzue entrenamenduetara joateko txoferra behar dudala? Begira zer gertatu zaidan korrika ibiltzearren. —Gurasoek elkarri begiratu zioten eta ez zuten ezer esan. Laiatzek, ostera, zerbait gehitu zuen—: Agian ez da ideia ona izan galdetzea bera ere!

—Nola ez? —erantzun zuen bere nebak.

—Zu ez sartu —esan zioten gurasoek.

—Nola ez naiz, bada, sartuko? Guztiok dakigu Laiatzek amore emango zuela pentsatzen zenutela. Egia esan, guztiok pentsatu dugu hori noizbait! Baina begira noraino heldu den. Titularra izateko bidean zegoen!

—Egia da, pentsatzen genuen Laiatzek amore emango zuela.

—Beraz, Leioara joaten utzi zenidaten eta bakarrik utzi ninduzuen amore eman nezan.

—Horrela esanda, guraso gaiztoak garelara ematen du.

—Gaiztoak zaretelako! —oihukatu zuen Laiatzek—. Hamabost urte ditut! Eta zuek esaten duzue oinez ikasi nuenetik ibili naizela baloiaren atzetik!

—Bai, txiki-txikitatik jarraitu diozu baloiari.

—Nota onak atera ditut, ez dut lan bat bera ere berandu entregatu, agindu duzuen guztia egin dut, amamarenera joan naiz astean behin bazkaltzera... eta bakarrik uzten nauzue amore eman arte? Badakizue orain ez dudala amore emango burua apurtu arte, ezta?

Gurasoak harrapatuta zeuden, euren tranpan erorita. Berriz ere, Asierrek salbatu zuen Laiatz. Zenbat maite zuen mutil hauskor hura! Munduan ondoen ulertzen zuen pertsona zela uste zuen.

—Ondo da! —esan zuen amak azkenean, eskuak altxatuz—. Guk eraman ezin zaitugunean, autobusez joango zara, baina uste dugu gehienetan moldatu egingo garela.

ONINTZA ENBEITA



ONINTZA ENBEITA MAGUREGI

Ikasketaz kazetaria da (EHU, 2003) eta pasioz bertsolaria. Euskaldunon Egunkarian trebatu zen idatzizko kazetaritzan eta hainbat aldizkaritan parte hartu izan du. Telebistatik pasatu ostean, idaztera itzuli da, eta Berrian idazten du orain egunero. Eguneroko kroniketan aritua den arren, eskuetan duzuna da, bere lehen eleberria.

Athletic Club Fundazioak sei mila ale argitaratu ditu, ikas-tetxeetan, liburutegietan eta futbol-klubetan doan banatzeko. Irakurketa eta futbolaren mundua hobetzeko laguntzen duten balioak sustatzea da Athletic Club Fundazioaren asmoa.

Athletic Club Fundazioak gizarte-, kultura-, ingurumen-, eta gizakirol-arloetan garatzen den proiektu bat du, eta urtean sei mila pertsona baino gehiago biltzen ditu. Gure jarduerari buruz gehiago jakin nahi baduzu, zoaz gure web-orrira, eta hor jakin ahal duzu nola lagundu eta nola izan gure proiektuaren parte.

www.athleticclubfundazioa.eus



Laiatzek futbolari profesionala izan nahi du, baina ezin izango du bere helburua bete zure laguntzarik gabe. Bere istorioak amaiera posible asko ditu, eta irakurleak eramango du protagonista amaiera horietako bakoitzera. Laiatzek gogoaren indarra du, baina zu izango zara, irakurle, azkenean San Mamesera eramango duena.

www.athleticclubfundazioa.eus



#IrakurketaAmaigabea